

Alex Txikon Annapurnara igoten saiatuko da

Zemendiaren 29an abiatu zan Nepalerantza Alex Txikon, Annapurna (8.091 m) igoteko asmoz. Annapurna neguan arrakastaz amaitu daben espedizino bi baino ez dira erregistratu eta lemoaztarra be, 2024ko zezeilaren 28a baino lehenago tontorra zapalduten saiatuko da. 2023ko neguan Manaslura egindako espedizinoa jasoten dauan *Manaslu invernal* liburua salgai dago. Txikonek hamar urte baino gehiago daroaz neguko espedizinoak egiten. **19. orrialdea**



Abenduaren 3a, Euskerearen Nazinoarteko Eguna

Abenduaren hasikereagaz batera, abenduaren 1ean bertan, barikua, hasiko dira Arratian Euskerearen Eguna ospatuten. Horretarako, euskerearen aldeko ekintza ugari antolatu ditue Arratian eta Zeberion, domekara arte. Holan, umeentzako ipuin kontaketeak, antzerkiek, ikuskizunak, jolasek, jaialdiek... edade guztietako jentententzako pelikulek, musikeak eta janariak, besteak beste, ipiniko deustie jai giroa euskeraz bizitzeko aldarrikapenari.

Antxinako euskera posible bat erakusten dauan *Irati* pelikulea ikusi ahal izango da Diman zapatuan, eta hurrengo egunean Zeberion. **5. orrialdea**



Greba feminista orokorra dala-ta, mobilizazinoak egin ziran Arratian

Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitutako greba orokorraren egunean, mobilizazino ugari eta jentetsuak egon ziran Arratian, oingo zaintza sistema irauli eta sistema publiko, komunitario eta feminista bat eskatzeko. Goizean piketeak eta kotxe karabanak, manifestazinoak, bazkaria Kiñu Gaztetxean eta arrastian, Bilboko manifestazinoan joan ziran lehenengo greba feminista orokorreko egunean. Grebari jagokonean, Hezkuntzan izan eban segimenturik handiena. **9. orrialdea**



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Klima datuak aztergai Tokikomeko hedabideetan


Tokikom taldeko hedabideek, tartean BEGITUk, alkarlana egin dabe klima datuak aztertzeko. Igorreko estazio meteorologikoan erregistratutako tenperatura eta prezipitazioen atzen 22 urteotako datuak eta June Ansoleaga eta Zuriñe Zulaiakari alkarizketea dira horren emaitza. **10. eta 12. orrialdeak**



ARRATIA, UBIDE

Algoritmoakaz diseinatu dabe garraio publiko personalizaua

Herritarren beharizanei egokitutako garraio publikoaren proiektu pilotua ipiniko dau martxan Arratiako Udalen Mankomunitateak. Herritik herrira eta auzuneetatik erdigunera joateko garraio publikoa litzateke. Adimen artifizialeko algoritmoen bidez diseinatu dagian, Celering enpreari esleitu jako proiektua. **7. orrialdea**



BEDIA

Bediako Udalak, Cementos Lemonak Apario ustiatzeko birkalifikazino onartu dau

Joan dan zemendiaren 28an udaletxean egindako ezohiko plenoko lehen puntuan, Apario eremu babestu izatetik, meatze-ustiapenerako eremu izateko birkalifikazino proposamena onartu zan.

EAIren aldeko sei boto eta EH Bilduren kontrako hiru botogaz egin eban aurrera proposamenak. Cementos Lemonak, oin CRH multinazional irlandarraren esku dagoana, Bediako Apario mendiarren zatia ustiatu ahal izango dau, Igorre eta Lemoako kare-harria agortu ostean. **9. orrialdea**

Literatura txokoa

DEITORA ZAITZALA TIGRISEK

Bederatzi ahotsen atsekabeek bilbatzen dabe eleberri motz honen mosaikoa. Etsipenari gorazarrea dala esan leiteke. Zazpi gizakiren aitorten, Tigris ibaiaren arrangura eta Gilgames-ek, oin dala 5.000 urteko epopeiatik eruziko pasarte txiki batzuk tartekatuta, biribildu dau Emilienne Malfatto kazetari eta idazle frantziarrak Irakeko gerrate tragediaren peko tragedia.

Heriotzea eta bizitza zein ondo katramilatzen diran, Mendebalde deitu honetan isilean eta ezkutuan emoten bada be, gu bizi garan burbuilaz kanpoko herrialdeetako, gordin-gordinik begietara ipinten deusku egileak, andra eta gizon, mendeetan zehar atxitu dabezan ohituen

eraginez, oin dala 11.000 urteko iraultza ostean eta geroago itzelezko aurrerakuntza ekarri eban lurraldean.

Odolak –krimen odolak– oho-reari bogada egiten deusku lekuetako erretratua, zantarkeriaz hauspotuta, erakutsi deusku nobelatxuan Malfattok (a zelako abizena!).

Harea, odola eta burdin ugeraren itsasoan maitasun lorea azalduaz batera, irendua, ertaroar hilkanpai hotsaz bustinduz, gerlak edertasun irudikeria itoko dau bere errezel baltz erraldoia zabalduz.

Gizonezkoak gudara, harrotasunaz lehenengotan, guda-lekukit bueltan, izuak eraldatuak eta amesgaiztoa gauero; andrazkoak

ostera, etxera, hilekoa agertukerari, burutik orpoetarainoko estalgi baltza eta supazterra, ezkontza noz etorriko, ezarritako arau egikari eta transmititzaile.

Kikilduarazo egiten daben esaldi motzez –Agota Kristoffen *Koaderno Handi*ko estiloa gogorazoten dau– marraztu deusku inguru hareetako gizarte giroa, galtzaile eta biktimak herritar guztiak, hegemonak (AEBK) herrialdea bere gerra eremutzat aukeratu dauanean.

Agnus Dei Tura



Emilienne Malfatto
Itzultzailea: Irati Bereau

Deitora zaitzala Tigrišek

Txalaparta argitaletxea, 2023

80 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zemendiaren 27tik abenduaren 3ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Saillburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 4tik 10era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 11tik 17ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardianik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era ordu. Jaiegunetan ordu

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era ordu.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

22:00etara ordu. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era ordu. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era ordu. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era ordu.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara ordu. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra ordu.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era ordu.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-

Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandio: 06:45etik 20:45era ordu.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era ordu.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta

jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Norabidea aldatu: pribadua ez da publikoa

BEGITU Aldizkariko 408. alean *Zerbitzu Publikoen pribatizazioak ekarri leikena* izeneko artikulua idatzi neban. Hurrengo alean nik idatzitakoari emondako erantzuna dala-ta, (*Fake news* izeneko artikulua) azalpen bat emoteko beharra dot. Izan be, eretxi artikulua kritiko baten aurrean desadostasunak adierazotea zilegi da, baina guzurretan oinarrituta dagoala esatea gehiegieria dala deritxat.

Euskal Hezkuntza sistemeak hainbat indargune ditu, baita eredu-garriak izan diran esperientziak edo hobetuteko esparruak be; orientazio akademiko-profesionala, besteak beste. Horrek ez dau esan gura, inondik inora be, ikastetxe kanpoko enpresa pribadu bat kontratatu behar danik urtenbide moduan.

Beste arlo edo irakasgaien inguruan be (musikea, ingelesa, matematika...) gurasoei galdetuko balitxake, hobetu beharra azpimarratuko litzateke seguru asko. Hori konponduteko enpresa pribadu bateko langile bat kontratatu litzateke (diru publikoz ordainduta) ikastetxe publiko barruan eta ordutegi barruan irakasleek egiten daben lan berbera egiteko? Lankide bategaz honetaz berba

egitean gaztelaniazko berba honek erabili ebazan: "*duplicidad de funciones y externalización de servicios*".

Benetako gertaera baten aurrean ez dago ezer hoberik gaurak nahastea edota manipuletea baino. *Fake news* artikuluan aitazten da Mankomunidadeak eskainitako drogamenpekotasun eta sexualidade tailer eta esku-hartzeak onartu dodazala urteetan, tailer emoileak azpikontratautako enpresa pribaduak izan arren, eta hori kontraesana dala nire aldetik. Esan behar dot ez dodazala onartu bakarrik, baizik eta bultzatu be. Oso desbardina dalako, sexualidade edo drogomenpekotasunaz tutoreak edo orientatzaileak jardutea, edo horretan espezialista dan batek. Orientazio akademiko-profesional arloan, barriz, orientatzaileok gara espezialistak.

Beraz, ikasturte bakar baterako 14.730 euro erabiltea (aurrekontuko paperaren arabera) ikastetxean orientazio akademikoaz jarduteko, kontuan izanda bertoko profesionalok hori bera egiten dogula, ulertezina da. Horrerik gehitu behar jako kanpoko persona izateagaitik, testuinguru eta ikasleak ezezagunak zituena. Dirua xahutzea da, eta pribatizazioa barrutik bultzatzea.

Enpresa pribaduak institutuan eskainitako zerbitzua esperientzia eredu-garri eta esportagarritzat jo eban Arratia BHIko zuzendaritza ikasturte amaierako klaustroan, eta ikasturte honetan errepetiduko zala adierazo eban. Akats bat errepetiduteak akatsa ez dala justifikauko

baleu lez.

Egiak faltsutat hartzeak eta gertatutakoak interes personal modura edota barne gatazka modura kalifiketeak agirian ixten dabe zuzendaritza eta beste hainbatek egindako hanka-sartze izugarria. Nork bere ondorioak aterako ditu. Ba al da *fake news* bat osasun eta beste hainbat zerbitzu publikoen hondatzea? Ba al da faltsua enpresa pribadu bateri esleitu jakola ikastetxe profesionalok egiten dogun lana? Eta milaka euro publiko ordaindu jakozala?

Luze egin dot berba gertaera zehatz baten inguruan, baina nire aurreko idazkiaren haria berreskuratu gurako neuke. Izan be, azaldutakoa ez da hezkuntza esparruan gertatzen bakarrik, ez da puntuala izan, ez da puntuala izango. Bada garaia norabidea aldatzeko eta konzientziak astinduz pribatizazioak eta merkantilizazioa salatuteko. Bada garaia desbardintasun soziala hantitu eta aukera bardintasuna ukatuko dituan mundurantz garoetan ekintzei galga ipinteko, publikoa defendiduteko pribaduagaz nahastu barik. Eskola Publikoa defendiduteko garaia da!

ROBERTO SALAZAR MUÑOZ. ARRATIA BHI-KO ORIENTATZAILE TITULARRA

Zeure Berbea


Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, esker-ronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

ERETXIA



JOSUNE MUÑOZ

Skolastika literatura zerbitzuak

Sorginak, modan ete?

Sorgin-ehizak dirala-ta, mendetan zehar guztiz zentzu negatiboagaz heldu jakun sorginaren esangurea aldatzeko ahaleginak aurreko olatu feministan hasi ziran. Izan be, 1973koa da Barbara Ehrenreichek eta Deirdre Englishek sortutako *Sorginak, emaginak eta erizainak. Emakumezko sendalarien historia bat* (Katakarak, 2019) liburuxka aurrendaria. Liburu horretan andra sendalarien historia, sendaketa-ezagupenak zein lanak eta jaso eben bazterketa prozesua arakatzan da. Sendalariak ziran, ez sorginak. Ez zan prozesu natural bat, politiko-ekonomikoa baino.

Ildo horretatik etorri zan 2004an Silvia Federicik argitaratutako *Caliban eta sorgina* (Elkar, 2017) liburu mugarririk eta ezinbestekoa. Horretan, idazleak azaltzen dau akelarre eta sorginen inguruko iruditegia sortzeako errazoiak politikoak izan zirala. Sorgin-ehiza edo heretikoen ehi-za horreen bitartez estadiuek edo Eleizeak lortu gura ebena zan bizimodu politiko eta ekonomikoa bat inponidutea; kapitalismoa, hain zuzen be.

Ondorioak oso latzak izan ziran andrentzat: Batetik, andren ohiko zereginak negatibizatu egin ziran. Andren zeregin horreen bitartez eukiezan askatasuna, autonomia, independentzia eta erabagiteko aukerak bertan behera itxiz. Andra eredu bat maltzurtu zan. Gerora, sorgin berbea erabiltea guztiz baliabide misoginoa da andra guztien kontra joteko, oindino be. Bestetik, andren askatasun bideak akabatu ebezan, eta Estadiuak zein Eleizeak gura ebezan

eredu estu eta misoginoa inponidu ebezan. Andrek kanpoan eta esparru publikoan eukien papera ezabatu eben, eremu pribadura konfinauz. Hirugarrenik, badago beste kontu bat, gizarte osoarentzako kaltegarria izan zana: andra horreek eukien sendatzeko jakituria ia osoa galdu egin da. Gale-
ra oso handia.

Beraz, moda bat baino, justizia ariketa da atzen urte honeetan iraganeko andra horreen izenak, lanak eta ekarpenak berreskuratzeko ahalegina. Katalunian, esaterako, onartu dabe estadiuek etorren jazarpen bat izan zala, indarkeria politikoa eta "feminizidio" berbak aitazten dira. Honetaz gainera, berreskuratu gura ditue eraildakoen izenak kaleetan eta plazetan ipinteko konpensazio sinboliko lez.

Gure herriko kaleetan eta plazetan ezartzeko andra horreen izenak aspaldi zerrendatu ditue ikerlari eta historiagile feministek. Eurei galdetzea baino ez da. Ikerlari feministak irakurriak eta entzunak izatea bada ikusi, bizi gura dogun moda.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka honetarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidea.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXXVI). Kale berbakunea sustatu guran

GAZTERIAREN ARTEAN HITANOIA IKASTEKO GOGOIA

- Hi Miren **badakiñe** zer?
- Zer Amaia, ze barri **dakarna**?
- Ba enterau **nona** Arratiako gazteen artean hitanoia ikasteko gogo jaiobari bat dabilala bor-bor!
- Eta hori?
- Ba Kiñu Gaztetxean ikastaro bat antolatu behar **jauriena** gazteen artean hitanoak indarra hartu dagian.
- Albiste itzela hi!!
- Gazteak **dozana** etorkizuna!!
- Eta gazteek euskerearenganako konpromisoa **bajaukiene**, euskereak aurrera egingo **jona**.



LUMATUTEN



MIKEL URRIZ

Gabonetako argirik ez!

Izenik ez dauanak ez dau izanik, esan ohi dogu euskal munduan gure errealidadea, kontzeptu, ikuspuntua agirian itxi gura dogunean. Egia biribiltzat jotzen dogun esalditxo horri erpina topau gura neuskio, onerako edo txarrerako be, izenik daukan guztiak ez dauala beti izanik azpimarratu gurako neuke.

Izana eta izena dau Larrialdi klimatikoak. Garapen iraunkorraren kontzeptua 1992ko Rioko Luraren Gailurrean guztiz definitu eta zehaztua geratu zan. Hogeta hamabi urte luze joan dira eta errealidadeak garapen iraunkorari izena bai, baina izana ez deusala emon erakusten deusku. Hau da; garapen iraunkorra ez da existiduten. Euki badaukagu ekonomia berdearen kontzeptua, azaleko lakako kolorearena bada be, Repsol, Iberdrolak, Endesak... eta instituzino publikoek be! ekologismoa irudi korporatiboan txertatu dabe, baina praktikan aldaketarik ez. Izena ipini deusagu arazoari baina ez dirudi

izana argi daukagunik, garapena jente-arteko ondoizateari lotu beharrean konsumo eta etenbako garapen ekonomikoari lotzean deusagu oindino. Alajaina! Zabor tratamantuan be, 3R-etako estrategiatik 7R-etako sistemara igaro gara baina zabor ekoizpenak gorantz jarraitzen dau.

Ez dogu izen faltea, izaerea baino. Barrukoak jaten deustiezan errealidade honeek adibide: Bata, nongura agertzen jakun Black Friday hori (euskerazko izena ez deusat emon gura Euskal Herrian behintzat, izana ez dagian esperantzeagaz). Jakin badakigu kanpaina honek, besteak beste, zentzu bako konsumoa errotu, hondakinak gehitu eta eroste ekintza balio barik itxi eta deuseztatzen dauala, halan be ontzat, edo normalizat behintzat, hartzean dogu jente-artean.

Bestea; argi kolore eta dirdiratsuz beterik ikusten doguz gure herrietako kaleak egun honeetan, energia pobreziazen arazoari muzin eta energiaren zentzubako konsumoa ahaztuta, alkate askok norgehiago lehiaketan murgiltzen dira... Gureak New Yorketik ikusiko ditue dino Vigoko alkateak eta ergelkeria kritikau beharrean xelebrekeria moduan irribarez hartu eta gure herrian be hamaika argitsu bizten dogu.

Arazoak, larrialdi klimatikoa, izena dauka, baina berari jagokon izana, gure eguneroko portaeren ezinbesteko bihurtu ezean, ez dau izanik izango hamaika komunikabide eta sare sozialetan agertu arren.

ZERTZEAN



SAIOA LARREA

Espirala



BEGI TXINDORRA

Jentetzea egon zan indarkeria matxistearen kontrako uriburuetak manifestazioetan eta herrietako elkarretaratze ugarietan be, jente ugari batu zan. Argi, garbi eta ozen esan eban gizarteak nahikoa dala, amaitu egin behar dala munduan eta gurean be bai, hainbeste andra hiltzen dauan indarkeriagaz eta neurriak hartu behar dirala odol jario hori eteteko.

Arratiako Egoitzako egoiliarrek be gehitu ziran aldarrikapenari egoitzan bertan. "Arratien eraso danek erantzun bakarra. Eraso bakarrak danon erantzune" lelopean batu ziran burukara eta egoitzetan, ia ezkutuan bizi diran horreen aldarriak be entzun ziran zemendiaren 25ean. Gizartearentzako ikusiezinak dira gehienetan zahar etxeetan bizi diranak, sistema patriarkal kapitalistek bazterretara botata. Baina euren ahotsak altxatukeran, ikusgai eta ikusgarri egin ziran, jagokien lekua hartuz: erdigunea.



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Ikerjona Zerbitzu 101
R.P.S. 31/06

UBIDE

Ubideko herritarren marrazki erakusketea gaztetxean

Erredakzioa

Abenduaren 1etik 3ra, hilda zein bizirik dagozan Ubideko herritarren marrazki erakusketea egongo da Ubideko Gaztetxean, 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Ubiden bizi dan eta oin dala urte bi jubilatuko Mamen Lopez amurriarra da marrazkion egilea. "Oin dala ia urte bi herrira etorri ziran ukrainar batzuk herriko errekarara joan ziran eta irudi ederra zanez, marraztu egin nebazan eta marrazkia emon neutsen. Hortik aurrera, herriko jentea marrazten animau nintzan. Herritarrei argazkia atera edo argazki bat eskatu eta marrazteari ekin neutsan. Siesta orduan, gaez... etxean marraztu dodaz irudiok" dino marrazkigileak. 119

herritar marraztu ditu eta gehiago marrazteko prest be badago. Izan be, orokorrean, jenteari "idea ona eta ekintza polita" iruditu jako.

Erakusketako irudiak egiteko, alabak txikiak ziraneko Alpino margoak erabili ditu.

Lehiaketea

Erakusketan, marrazkiak ikusteaz gainera, lehiaketa baten parte hartzeako aukerea be egongo da. Marrazki bakoxtari zenbaki bat ipini deutso egileak eta paper baten irudikoen izenak idatzi beharko dira. Gehien asmatzen dabenek opariak izango dabez. Kafea eta pastak be egongo dira hurreratzan dirantentzat.

Erakusketea amaitutakoan, marrazkiak udaletxean ixteko asmoa dauka Lopezek.



AREATZA

Herrian erosteko bonu kanpaina ipini dau martxan Udalak Areatzan

Erredakzioa

Zezeilaren 3ra arte, %20 merkeago egin ahal izango dira erosketak Areatzan. Izan be, Areatzako Udalak Bonodenda kanpaina ipini dau martxan eta 20 euroan erositako bonuak 25 euroko balioa eukiko dau kanpaina parte hartzean dabene zortzi komertzioetan: Aliprox Areatza, Andikoa harategia, Gauzak dendea, Arantza Zamalloa farmazia, Estankoa, Denda Barri fruta-dendea + Ke PAN okindegia eta Vade retro uleapaindegia. Guztira 600 bonu ipini dira salgai eta 16 urtetik gorako persona bakoxtak hiru bonu gehienez erosi ahal dauz Gauzak dendan.

Bonuak erosi eta gastetako



epea bera da. Bonuak metatu daitezke baina ezin izango dira trukatu diruaren orde.

ARRATIA, ZEBERIO

Euskerearen Nazinoarteko Egunaren harira, aisialdirako jarduerak eratu ditue

Euskerearen erabilera bultzatuteko, aisialdian euskeraz egiteko ohiturea sendotzeko eta hurrengo belaunaldiei euskerearen transmisioa egiteko, batez be umeei zuzendutako aisialdiko jarduerak antolatu ditue Arratia, Ubide eta Zeberion, abenduaren lehenengo hiru egunetarako.

Erredakzioa

Abenduaren 1ean, barikua, hasiko dira euskerea bultzatzea bilatzen dabene ekintzak. Holan, Areatzan, umeentzako ekintzek hartuko dabe arrastia. Ameli eta Xirrikuten jostunen *Amonaren istorioak* ipuin kontaketea egingo dabe ludotekan 17:15ean eta ostean, 18:15ean, Gaztelekuko gazteek umeentzako tailerrak, hormairudia eta jolasak antolatu ditue. Amaitzeko txokolatea egongo da 19:15ean plazan. Artean, arrastiko 16:30ean, jaialdia egongo da frontoian. Jantzak, musika eta txokolatea egongo dira bertan. Bedian, barriz, aisialdian nagusien artean bultzatu gura dabe euskerearen erabilera eta, 19:00etan, trikitilariak girotutako gaztai eta ardao dastaketea egongo da plazan. Igorren, AEK-ren Berbalagun egitasmoak antolatu dau publiko guztietarako dan Eriz magoaren ikuskizuna, 18:30ean, Kultur Etxean. Saioa deabaldekua da.

Lemoak ume eta gaztetxoentzako hainbat jarduera prestatu ditu eskolako aterpean. Holan, 16:30ean, jolasak eta tailerrak egongo dira; 18:30ean, rap tailerra Xsakaragaz, eta 19:45ean, Kittu taldeagaz erromeria. Jana eta edana be ez dira faltauko.

Zeanurin, Mikel Martinezek antzezten dauan Patxo Telleriaren *Tabernaria. Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña* bakarriketeak umore puntua ipiniko deutso egunari 19:30ean, Txoko Sagarnan.

Hurrengo egunean, zapatuan, ikuskizun bana egongo da Diman eta Igorren. Diman, 18:00etan, *Irati* filma ikusi eta zuzendariagaz berba egiteko aukerea egongo da eskolako kamaran. Pelikulea VIII. mendean dago girotuta, eta euskera nafar zaharra erabilten dabe personaiek. Igorren be pelikula bat ikusteko aukerea egongo da 20:00etan, Kultur Etxean. Kasu honetan, *Bidasoa 2018-2023* dokumentala egongo da ikusgai. Dokumentalak, transitoan hildako migrantei gorazarre egin eta aktibistei ahotsa emoten deutse.

Euskerearen Eguna

Domekea da aurten abenduaren 3a eta goiz eta eguerdi partean



antolatu ditue euskerearen aldeko ekintzak Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Igorre eta Zeberion.

Arantzazun, 11:00etan batuko dira herriko ume eta nagusiak, hormairudi bat pintetako edo txapa tailer baten parte hartzeako. Eguerdiko 13:00etan, manifestuaren irakurketea eta Argazki Lehiaketako sari banaketea egingo da; ostean, euskal kantak abestuko ditue batutakoek, triki-poteoan.

2024ko egutegiko Argazki Lehiaketako sari banaketea be egingo da egun horretan Areatzako udaletxean 12:00etan. Ordu erdi beranduago, kantu-poteoa hasiko da herrian Kilometro kantutaldea batera.

Artean, umeentzako antzerkia egongo da. Antxo ta Pantxak, Gora Bihotzak alkarte osotuten dabene pailazo taldeak *Eman bizi*a aurtengo lan barria eskainiko dau 12:30ean, Kultur Etxean. Trasplantearen gaia ardatz hartuta, eta trasplanteetan lan egiten eta ibili diran hainbat personagaz alkarlanean sortu dabe zemen-diaren 26an estreinautako lana.

Diman, goizeko 09:30ean hasiko dira frontoian hormairudia margozten. Eguerdiko 12:15ean agurra egingo dabe plazan eta ostean, euskerearen aldeko jaiak eztanda egingo dau kalejira, bertso, zantantzar, jantza eta kantuakaz. 13:00etan, egingo da ekitaldia frontoian.

Igorren, 12:00etan hasiko da kantutegiaren inguruko tailerra Kultur Etxeko goiko gelan; 13:00etan kantu-poteoa egongo da Eingo taldeagaz Kultur Etxetik hasita eta arrastiko 19:00etan, Axut eta Artedrama konpainiek *Hondamendia* antzezlan eskainiko dabe Lasarte Aretuan. Harkaitz Canok 2022an idatzitako lan hau 2020ko gertaera bitan oinarritzen da: zezeilean Zaldibarko zabortege baten kolapsoak, langile bi desagertu arazo ebazan azpian eta martian, hainbat personaren bizimodua aldatu eban covid heldu zan. Lan honetan 8 aktorek, 23 personaia egiten ditue.

Zeanurin, eguerdiko 12:00etan, umeentzako talo tailerra egongo da plazan eta gero talo-jana. Ostean, triki-poteoa egongo da herritik. Zastaparrak taldekoek triki-poteoagaz batera rallya antolatu dabe be. Taloak izango dau bere lekutxo Zeberion be. Izan be, 11:30etik aurrera, taloak egiteko txokoa egongo da, baina baita kamisetak eta txapak margoztekoa eta karaoke txokoa. 12:30ean, gaztain erreak jan eta Jon eta Olatz trikitilariakaz poteoa eginaz kale animazioagaz gozatuko dabe hurreratutakoek. Euskerearen aldeko ekitaldia egingo da 13:30ean eta *Irati* pelikulea ikusteko aukerea egongo da 19:00etan.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Osasun zentroetako ordutegi murrizketak dirala-ta, hainbat udalek kezka adierazo deutsie Osakidetzari

Abenduan, Osakidetzak zerbitzuaren ordutegia murriztuko dau 104 osasun zentrotan.

Erredakzioa

Igaz, 90 zentrori eragin eutsan neurri honek, aurreko urtean baino 28 zentro gehiagori. Osasun zentro gehiagotan eta zerbitzu murrizketa handiagoak izango dira aurtengoak; izan be, ez bakarrik Gabonaldian, abenduko hasierako zubian be egingo dira-ta zerbitzu murrizketok, osasun zentro batzuetan.

Arratian eta Zeberion be ordutegi eta zerbitzu murrizketak egongo dira herrietako konsultategietan; osasun arreta lgorren zentralizau eta herrietatik urrunduz. Hori dala-ta, hainbat udalek desadostasuna eta kezka heldu arazo deutsee Barrualde-Galdakaoko ESri zein beste erakundeei. Arantzazun gainera, hiru urte eta erdi daroz konsultategi barik, 2020ko martian, COVID-19aren pandemiaren atxakiapean herriko konsultategia zarratu zanetik.

Areatzakako EH Bilduk aurkeztu-

tako mozinoa onartu eban Udalak zemendiaren 29an, ezohiko plenoan, bere zinegotzien 5 aldeko botoakaz. Bertan dinoe murrizketak dirala-ta udan gertatu zan egoera berean egongo dirala herritarrek abenduaren 26tik urtailaren 7ra arte, osasun arreta lgorren zentralizauko dabelako eta billaroztarrak medikuarenera joateko mobidu beharko diralako. Gainera, "langileen lan baldintzak eta herritarrei eskaintzen jakon zerbitzua prekarizauko dira barriro be". Honen aurrean, Eusko Jaurlaritzeari eskatuten deutsie urte osoan zehar zerbitzuak bermatutea eta osasun beharginen lan baldintzak hobetutea.

Dimako Udalak be, zemendiaren 14tik urtailaren 7ra arte Dimako anbulategian egongo diran murrizketen inguruko Udalaren "kezka eta desadostasuna" jakinarazo eutsan Lehen Mailako Arreta Unitateetako kudeaketa taldeari idazki baten bidez.

Arantzazu hiru urte eta erdi konsultategi barik

Arantzazuk hiru urte eta erdi daroaz konsultategiko zerbitzu barik. Hori dala-ta, Arantzazuko Udal Gobernuak hiru gutun bidali ditu konsultea barriro zabaldueteko eskatuz. Lehenengo, 2021eko bagilaren 3an, bigarrena 2021eko zemendiaren 16an eta hirugarrena 2022ko urri bigarrenaren 13an. Aurten be, zemendian, Osakidetzako Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuari (ESI) gutuna helduarazo deutso "Arantzazuko lehen arretako konsultategia 2020ko martia baino lehenagoko baldintza bardinetan" zabaldueteko eskatuz. Hau da, astean birritan ordu bi eta erdiko zerbitzua berreskuratzea.

Gutunean, "gure herriarentzat zerbitzu hau barriro zabalduetari uko egiteak kalte handia dakar, batez be adineko biztanleentzat eta zer esanik ez ezgaitasun mailaren bat edo dependentzia daukientzat, osasun mailako lehen arreta jasoteko garraioa edo hirugarren persona baten laguntzea izatera derrigortuak dagozalako" azaltzen dau Udalak. Eta Arantzazun zerbitzua emoteko ez dala medikurik kontratau behar gogora ekarten dau, "Igorreko Osasun Zentroko lehen mailako arretako mediku baten kupoaren zati bat" dalako.



IGORRE

Abenduaren 15ean egingo da Igorreko IV. Azoka Solidarioa

Erredakzioa

Elkartasun Begiradak Igorreko alkarteak antolatuta, aurrera doa Igorreko IV. Azoka Solidarioa.

Zemendian zehar ipini daben postuan jentekak dohaintzan emondako jostailu, liburu, motxila, mozorro eta bestelakoak batu ostean, abenduaren 15ean

salduko ditue. Arrasti osoan zehar ipiniko dabe postua Lehendakari Agirre etorbidean, autobus gurelekuaren ostean, eta lortutako dirua Efela alkartearentzako izango da, aniztasun funtzionaldun pertsonen Igorreko alkarte.

Elkartasun Begiradak-eko kideak katekesian boluntario izandako gurasoak dira eta balore horreek lantzen jarraituteko ipini eben martxan azoka solidarioa umeak katekesia amaitzerakoan. Lehenengo urtean, 2019an, 1.700 euro lortu ebezan eta honek jarraitutera bultzatu ditu urteotan. Holan, urtez urte handitu da azokea eta hirugarren edizinoan, igaz, 2.500 euro lortu ziran minbizidun umeakaz lan egiten dauan Aspanovas alkartearentzako.



ZEANURI

Ia ehun motorzale batu ziran Zeanuriko Enduro taldearen urteroko urtekerara

Erredakzioa

Zemendiaren 19an, 93 lagun, euren motor, quad edo buggykaz batu ziran Zeanuriko Arregia auzoan, urtero Pedro eta Iñigo Sagarna anaiek antolatuten daben urtekerea egiteko. Hogeta hamar urte dira hau antolatuten hasi ziranetik. Urtekerara, jente gehiagok hartzean dau parte eta barrien artean gazteak dira asko.

Eguraldiak lagundu eban aurtengo edizinoan. Urteroko ibilbidea egin eben: Zeanuriko Arregia auzotik urten eta Altunara Makaztuitik

igon, Altunatik Otxandiora, Otxandiora Basagurenjartetxean armozua hartu eta Otxandiotik Ubidera eta Ubidetik Zeanurira, hain zuzen be. Adin guztietako jentea, mota desbardinatoko motorrakaz etorri ziran, Arratia, Gasteiz eta Bizkaia osotik. "Oso pozik gagoz. Urte batetik bestera gero eta jente gehiago etorten da eta emoten dau jente gaztea eta jente gehiena egun honen zain egoten dala. Urtean egun bakar baten batuten gara eta oso polita da, ze ez da erraza hainbeste jente batutea" azaldu deutso Begituri Pedro Sagarna antolatzaileak.



DIMA

Langile finkoentzako peoi lanpostu bi atera dauz Dimako Udalak

Erredakzioa

Dimako Udalak bere behargin publikoen egonkortzeko prozesuan, peoi lanpostu bi atera dauz langile finkoentzako. Izena emon daiteke abenduaren 12ra arte. Hautaketea lehiaketa-oposaketa bidez izango da, sarbide libreko txandan.

Oinarriak eta eskabidea, udalerekin bertan eskuratu daitezke edo

www.dima.eus udal webguneko lan eskaintza publikoa atalean.



ARGAZKILUNE
684080827 Lehendakari Aguirre 2 Lemoa.

684080827

GABONETAKO ERREPORTAJEAK
www.ilunefoto.com

LEMOA

Udal ikastaro eta tailer barrietan izena emoteko epea zabalduko da abenduaren 4an

Erredakzioa

Datorren urtean hasiko diran Lemoako bost ikastaroetarako izena emon daiteke abenduaren 4tik 17ra, udal webgunean. Ikastaroak, *Ginekologia naturala eta sexu ahalduntzea II*, *Robotika haurtzaroan*, *Dronen munduan murgiltzen*, *Denboraren bankua* eta *Komunikazio ez bortitza* dira.



Ane Ortiz Ballesteros Mundu Berriak barrikuntza sexologikorako erakundeko kideak emongo dau *Ginekologia naturala eta sexu ahalduntzea II* ikastaroa martitzenetan, urtailetik maiatzera bitartean. Sakontze ikastaroa da hastapen ikastaroa eginda daukientzat. Andren sexu-ahalduntzea indartuko dabe, gorputza ezetu eta autoestimua landuz. *Robotika haurtzaroan* ikastaroa, LH3 eta LH6 bitarteko umeentzat da, debalde, baina izena emon behar da udal webgunean. Hiru saio izango ditu eta ludotekan izango da. Tailer honetan umeek proiektu errazetatik hasita, "eredu desbardinak sortuko ditue; esate baterako, ibilgailuak edo ferietako atrakzioak. Ondoren, ereduak programazioaren bidez, bizia hartuko dabe".

Dronen munduan murgiltzen tailerra ume koxkortuago eta gatzetxoentzat izango da; 12 eta 16 urte bitartekoentzat. Dronen munduagazko lehen kontaktua

izateko aukerea izango dabe tailer honetan. Hiru jarduera gauzatuko dira, atal teorikoa, dronen diseinu eta muntatzea eta azken atal praktikoa. Tailerra Gazteleguan izango da martiaren 16an.

Denboraren bankua lankidetzeta eta laguntza komunitarioko eredu bat da. Bertan, denporea, zerbitzuak, jakintzak eta ezagutzak, modu boluntario eta antolatuan trukatzeko ditue partaideak. Bizikidetzeta eta gizarte kohesiorako espazioa da eta urtailetik abendurarte aurreikusten da.

Nerea Mendizabalek emongo dau *Komunikazio ez bortitza* saio biko tailerra, apirlean. Marshall Rosenberg-ek garatutako eredu oinarrituko da Mendizabal. "Norbere sentimendu eta beharrak adierazoteko eta bestearen jarkera desatsegina entzun eta ulertzeko aukerea emoten deusku, egoera gatazkatsuek kooperaziotik eta errespetutik konponduteko, eta ez epaiketa eta min egitetik".

ARRATIA, UBIDE

Gazteek sortutako enpresak diruz lagunduko ditue Arratiako Udalen Mankomunitateak eta Bizkaiko Foru Aldundiak

Erredakzioa

Eskaerak gazteria.arratia@bizkaia.org posta elektronikoren bidez, edo Mankomunitateko dokumentazio sarrerearen Erregistro Orokorrean aurkeztu daitezke abenduaren 15era arte.

Arratian, 2022 eta zementiarren 2023 bitartean enpresak sortu dabezan 18 eta 35 urte bitarteko gazteek eskatu daiekien laguntzok enpresak sendotuteko. Baldintzak beteten dabezan

eta Arratiako Udalen Mankomunitateak sustatutako banakako laguntza prozesuan parte hartu daben enpresek 1.000 euroko laguntza jasoko dabe. Banakako laguntza prozesua aholkulari adituen kontura egin da, eta batez be negoziotua finkatzera bideratuta dago.

Oinarri osoak, bete beharreko baldintzak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, Arratiako Udalen Mankomunitatearen webgunean dago eskuragarri.

ARRATIA, UBIDE

Garraio publikoa personalizaua egiteko galdetegia bananduko dabe etxeetan

Herritik herrira eta auzuneetatik erdigunera joateko garraio publiko tradizionala ez dala eraginkorra ikusita, Arratiako Udalen Mankomunitateak Bizkaiko Foru Aldundiko laguntzeagaz, herritarren beharrezan egokitutako garraio publikoaren proiektu pilotua ipiniko dau martxan. Celering enpreari esleitu jako proiektua, adimen artifizialeko algoritmoen bidez diseinatu dagian zerbitzua.

Erredakzioa

Hori dala-ta, garraio zerbitzua personalizaua diseinetako, herritarrek beteteko inkesta bat zabaldu dabe. Bertan, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igoerre, Lemoa, Ubide eta Zeanurin erroldatutakoek euren ohiko ibilbideak eta ordutegiak adierazoz lekiez; holan, zerbitzu barria, ibilbide, abiapuntu, ordutegi eta sarritasunaren arabera egin ahal izateko. "Inkesta honetan bildutako informazioa funtsezkoa izango da ibilbide ohikoak diseinetako eta eskuragarri dagozan ibilgailuak espero dan eskaerara egokitzeko" dinoe Celering-etik. Abenduaren 22ra arte, bete daitezke etxeetara bialduko dan galdetegia. Online be eskuragarri dago <https://form.jotform.com/232914111723346> estekan edo 94 471 46 24 telefonon.

Datu honeekaz, ebatziko dabez ibilgailu kopurua, ordutegiak, sarritasun handieneko ibilbideak eta, jentea jasoteko beharrezkoak diran galdetuek.

Aurreikusitakoa beteten bada, urtailaren bigarren astean hasiko da zerbitzua.

Erabilera

Zerbitzua martxan dagoanean erabili ahal izateko, erabiltzaileak, zerbitzua erreserba egin beharko dau aplikazio baten bitartez edo telefono batera deituz. Gidariak eskaerea jaso eta

eskutzailea dagoan lekutik hurren dagoan geredu jasoko dau. Bidaia, beste erabiltzaile batzuk konpartidu ahal izango da.

Arratiako Udalen Mankomunitatearen ekimen honen helburua, kotxe partikularren erabilpenari alternatiba bat emotea da, CO² ren kutsadura gaitztea eta arratien bizi-kalitatea hobetutea, dagoan garraio publikoari zerbitzu barri hau gehituz.

Celering

Celering garraio iraunkorreko

plataforma digitalaren garapeneren atzean dagoan enpresa teknologikoa da, eta, proiektua gauzatuko dau, taxi-gidariak eta tokiko autobus konpainiak lankidetzan, "denpora errealean, ibilbideen eskaera ibilgailu motara eta erabilgarri dagozan jesarleku kopurua egokituz, ibilbideak optimizauz eta erreserban eskatutako lekualdatze premia bereziak egokituz; mobikortasun eraginkorrako baterako diseinutako adimen artifizialeko algoritmoen bidez".



Kili-Kili
Ampo eta Puzkiltzura
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 43 81

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Behar dagoen jabetza

- Salmentan zein alokairuan
- Lurak (enkitzeta, landak, basak...)
- Etxe/izotzak (buzak, baserriak, etxak...)
- Garaioak
- Lokal komertzialak
- Pabiloiak...
- Balerazioak

Behar dagoen proiektuak

- Trakiri berriak enkitzeko
- Enketak
- Arkitekto-proiektuak

-Borne diseinua

- CEE eta IIE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Udaltza Agirre 25, 48100 - Igoerre
Telefonoa: 94 673 81 81 - 45 16 31 31
Gazteak: 94 673 81 81
Webgunea: www.arratia.com
Arratiako Udalen Mankomunitatearen

Olaetxe
OPTIKA ENFERMERIA

- Graduazioak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA
Gorbeialde

Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

IGORRE/LEMOA

Sai zuriaren habiatokian lanakaz jarraituten dau Red Electrica Españolak

Erredakzioa

Igorre eta Lemoa eremuan, sai zuriaren habiak dagozala egiazta- tu ondoren, Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak salaketak aurkeztu ebazan udaletxean eta Igor Benaola Garamendikoak Bizkaiko Foru Aldundian eta Estaduko ingurumen-organoan, Durangoko epaitpegian eta Fiskaltzan kautelaz-ko eta oso kautelazko neurriak eskatuz. Hau da, lanak geldituta eta Gueñes-Itsaso linearen trazadurea aldatuta, besteak beste.

Zemendiaren 6an, Durangoko epaitegiak emondako autoak, "ingurumenaren kontrako delitua egon daitekela", agintzen dau

Red Electrica Españolaren (REE) kontrako salaketea Fiskaltzara bialdutea "eskutatuko kautelazko neurrien barri emon dagian".

Denporea aurrera doa eta REEK jarraituten dau Itsaso eta Gueñes artean, 400 kV-ko energia elektrikoa garraiatzeko 72 km aireko linea egiten, eta horretarako Igorre-Lemoa



inguruan torreak egin eta kableak ipinten, sai zuriaren habien gainean.

Sai zuria espezie mehatxatu eta babestu moduan dago katalogautan. "Udabarria etorriko da eta bueltauko dira sai zuriak, habia egingo dabe" dino Benaola Makatzak-eko kideak. T42 torrea, hurren dagoana, habiatik 200 metro baino gitiagora egongo litzateke, hau da, 400 metro baino gehiago Aldundiak proposatutako babes-eremuaren barruan, eta oraintsu topau daben beste habia baten gainean, kableak ipini ditu REEK, honek dakarren sai zuriak hil edo txitoak aurrera atera ezinoko arriskuagaz. Habialekuak galdutea "galera handia litzateke, ez bakarrik Igorre eta Lemoarentzat, Bizkaia osoarentzat be".

ARANTZAZU

Arantzazuko Herriko Taberna alokairuan hartzeako pleguak eskuragarri dagoz

Erredakzioa

Arantzazuko Udalak lehiaketa- ra atera dau Herriko Tabernako instalazioen kudeaketea; hau da taberna eta jantokia. Lokalaren aurrean, jaubetza publikoan gehienez 50 metro karratuko terraza ipinteko eskubidea eukiko dau taberna hartzean dauanak. Abendua amaitu arte aurkeztu daiteke dokumentazioa udale- txean. Informazioa eta baldintzak

be bertan eskuratu daitekez.

Hartzaileak hilean 50 euroko errentea ordaindu beharko dau. Alokairua urtebetekoa izango da, baina epe hau beste hiru urtetan luzatu ahal izango da, alde bietako batek, lehen urte hori amaitu baino hile bi arinago, kontratua amaitzeko borondatea azaltzen ez badau. 600 euroko bermea be itxi behar dau hartzaileak, kontratua sinatzen danetik, gehienez 10 egunera.



ARTEA

Udal eraikin guztietan eguzki plakak ipini ditue



Arteako frontoia.

Erredakzioa

Zemendian eskolan ipinitako eguzki plakakaz, Arteako Udalak udal eraikinetan plaka fotovoltai-koak ipinten amaitu dau. Han, 455 watioko 32 eguzki plaka ipini ditue, urtean 14,56 kW sortzean dituenak; Kultur Etxean, beste horrenbeste; Gaztelekuan 6 plaka, 2,73 kW sortzean dabezanak eta frontoian 92 eguzki plaka. Atzen honeek sortutako argindarrak gimnasioa eta udaletxea be horniduten dauz.

Eraikin publikoetan eguzki plakak ipinita, Agenda 2030 bete, energia barriztagarriak bultzatu eta argi publikoaren fakturan aurreztu gura dau Udalak. "Frontoian, oin

dala 14 edo 15 urte ipini ziran plaka batzuk. EVerenak ziran, eta kontratua zan 15 urte pasautakoan, Udalarentzat izango zirala. Hori aprobetxautu, pentsau genduan Agenda 2030eko betebeharreran pausak emotea" azaldu deutso BEGITURI Alberto Intxaurreaga Arteako alkateak. Horretarako, Arteako Udalak 90.000 euroko inbersioa egin dau; %90 inguru dirulaguntzakaz. Udaleko argindarreko fakturan %20-30 aurrezteko espero dabela dino alkateak.

Hurrengo pausua eraikinotako isolamentua hobetutea izango litzateke.

Azokea

Herri bat, merkatu bat ekimena- ren barruan, inguruko nekazaritza eta artisautza produktuen azokea egongo da abenduaren 2an Ar- tean. Bertan erosi ahal izango dira Arteako ogia eta txakolina edo zidarrezko bitxiak. Inguruko baserrietatik, ardi edo ahuntz gaztaiak, ogia eta euskal pastelak eta pateak, besteak beste erosi ahal izango dira azokan. Artisau- tzeari jagokonean, zidargintzako lanak, boltsak, zeramikea eta es- kulanak egongo dira.

KONTZERTUETATIK ETXERA BUELTATZEKO AUTOBUSA LEMOA-DIMA-ZEANURI

DURANGOKO AZOKA - KONTZERTUAK

NOIZ:

2023ko ABENDUAREN 9an (zapatu gauean)

NON:

LEMOAKO EUSKOTREN ESTAZIÑOAN

ORDUTEGIA:

GOIZEKO 03:00etan / GOIZEKO 05:00etan



BEDIA

Udalak onartu dau Cementos Lemonak Apario ustiatzeko birkalifikazioa

Zemendiaren 28an egin zan Bediako udaletxean ezohiko plenoa eta lehen puntuan, Apario eremu babestu izatetik, meatze-ustiapenerako eremu izateko birkalifikazio proposamena onartu zan.

Erredakzioa

EAJren aldeko sei boto eta EH Bilduren kontrako hiru botogaz egin eban aurrera proposamenak. Beraz Cementos Lemonak, oin CRH multinazional irlandarraren esku, Bediako Apario mendiaren zatia ustiatu ahalko dau, Igorre eta Lemoako kareharria agortu ostean.

Cementos Lemonak egindako kalkuluen arabera, 25 urtez atera ahalko dabe kareharria bertatik. Halanda be, bertan dagoan artadi kantauriarra eta bertako fauna kaltetuko da, alderdi biek onartu dabenez. Izan be, Bizkaiko Foru Aldundiak zein Eusko Jaurlaritzak egindako txostenek dinoe, lau hektareako artadia "interes komunitarioko habitata" dala. Gainera, bertatik jaioten dan errekaxoan be, ekosistemea aberatsa dala frogatu eban BEGITUK. Bizkaiko Foru Aldundiak dinoan han bizi daiteken bisoi europearra ikusi ez bada be, bertan ipinitako kamerak erakutsi eban ugaztun ugari bizi dirala: lepazuria, katajinetea, azkonarra, katamixarra, basurdea, azagarria eta orkatza.

Udal bilkuran, EH Bilduko zinegotzia dan Jose Luis Intxaustik esan eban, "daukagun ondare ekologiko baliotsuena mantenidu eta babestu" beharko litzatekela. Beraz, Cementos Lemonak jardureagaz jarraituta etekin ekonomikoak egongo dirala onartu aren, "momentuko etekinak" gailendu dirala esan eban Intxaustik, "etorkizunaren" kaltetan. Beste alde batetik, enpresek artadi birlandatzeko hartutako konpromesuz arduratu zan: "Nor arduratuko da? Zein da plana? Zeintzuk dira epeak?".

Aitor Sorriketa alkateak eran-

tzun eutsan EH Bilduri eta onartu eban, eurak be, hasikeran proiektuaren kontra egon zirala. "Ebatzi gogorra" dala onartu eban baina azkenean, "langileengan izango dauan eragina" hartu dabe kontuan baiezkoa emoteko. Holan, Apario, "kaltetuko da baina guk bermatu gura doguna da enpresa potente honek eskualdean jarraitzea" esan eban Sorriketak. EH Bilduk agertutako kezka, datozan asteetan argitzeko konpromisoa be agertu eban.

Langileak eta ekologistak

Ezohiko plenora, herritarrek bakarrik ez, Cementos Lemonako LAB sindikatuko langile batzordea eta Makatzak Arratiako Ekologistak taldea be egon ziran. Makatzak taldeko kide batek hartu eban berbea bozkaketea amaituta eta esan eban, minduta sentiduten zala, "ingurune babestua dana suntsituko dalako". Gehitu eban, langileak ipini dirala aurretik baina hau, "Arratia osoari kalte egiten deusan beste ebatzi bat" dala. Ikusleen artetik, beste galdera bat bota zan: "Lanpostuak ipini dira aurretik baina, zenbat langile dira arratiarrak?".

Honeri erantzuteko, LAB sindikatuko kide batek hartu eban berbea. Azaldu eban, inparzialtasunez bertaratu zirala plenora, "entzun eta gure afiliaduei egoera azaltzeko". Halanda be, Udalarik gogorazoz eutsan, Udalak eta Cementos Lemonak hitzarmen bat daukiela bertako jentea kontratetako eta hau errespetetako bidea egiten hasi behar zirala: "Udalak hitzarmenaren ardura hartu eta enpresea presionau behar dau bertoko langileak kontratetako". EAJ zein EH Bildu agertu ziran langilekaz ados.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Arratia mobilizau zan zaintza sistema publiko baten alde

Euskal Herriko Mugimendu Feministek deitu eban greba orokorra zemendian 30ean, gehiengo sindikalaren babesagaz. Arratian, erantzun irregularra izan eban, handia Hezkuntzan eta eskasa komertzioan, esate baterako. Mobilizazioak barriz sano jentetsuak izan ziran.

Erredakzioa

Goizean goiz, 07:00rak aldera, batu ziran Arratiako Igorren, eta kotxe karabana eta piketeak Lemoarantz joan ziran. Han panfleto batzuk banandu eta Bediara jo eben gero, zaharren egoitzara eta handik Lemoako eskolara. Momentu horretan 27 kotxe osotuten eben karabana. Gero Igorreko Industrialdera joan eta Arantzazu eta Arteako industrialdera joan ziran. Ostean Igorreko eskola eta Institututik pasau eta Igorreko zentrorra bueltau ziran.

Arratian grebak izandako jarraipenaren datu zehatzik ez egoan greba eguneko goizean. Datuak lortzeako zailtasunak izaten egozala aitortu eutsin LAB sindikatutik BEGITURI, Ha-ta guzti be, "LAB sindikatuan somatu dogu desorekea. Leku batzuetan %80ak egin dau greba, baina beste batzuetan %5 edo %10".

Hezkuntza formalean, segmentu handia izan eban, izan be, Arteako eskolan irakasle guztiek egin eben greba, %100; Areatzan %68; Dimako eskolan %92, Igorreko eskolan %75, Institutuan %66 eta Zeberioko eskolan %100. Zeanuriko eskolako umeak barnetegi baten egoazan egun horretan. Areatza, Artea, Dima eta Zeberioko eskolako jantokiak zarratu egin ziran.

Komertzioari eta ostalaritzeari jagokonean, grebari segmentua askoz txikiagoa izan zan eta herri guztietan, denda eta taberna gehienak zabalik egon ziran. Industriari jagokonean, datu faltan, baina piketeen arabera, segmentua ez zan handia izan.

Zaintza eta informazio gunea

Laneko grebaz gainera konsumo greba moduan be planteatu egoan. Hori dala-ta, goizetik pikeeteetan hasita egun osoan zehar burrukan egongo ziran aktibistentzat, edari beroak, mokaduren bat, aulkia eta komunak eskaintzen dabazan gunea ipini ditue antolatzaileek; baita Igorren be. "Greba feminista orokorra danez eta dana zarratuta egon eitekeenez eta gainera konsumo greba be badanez, pentsau genduan

informazio gunea bat ipintea informazioa emoteko eta mokautxo bat jateko: kafea, infusinoak, ur eta bizkotxoak. "Informazioa emoteko, eskuorriak, herri akordioari buruzko datua eta zaintza sistema publiko komunitario feminista baten gaineko dokumentua, besteak beste.

Ekintza eta manifestazio jentetsua Igorren

Eskualdeko ekimen zentrala izan

zan jentetsuena, *Performance* batez hasi zan gero manifestazio bihurtu zana, Lasarte parkean amaituteko. "Zaintzagaz negoziarik ez egitea" "sistema publiko indartzea" eta "zaintzaile guztien erregularizazioa" eskatu eben beste gauza askoren artean. Arrastian Bilboko manifestaziora joateko, kotxeak antolatuteko geratu ziran. Izan be, garraio publikoa be grebara deituta egoan.



EGURALDIA

Uda luzeagoa da, negua epelagoa eta euri gitxiago egin dau atzenengo urteotan

Urtea amaituten dago. Udagoienak oin arte tenperatura epelak izan ditu eta ez eban emoten gaztaina sasoiak zanic; zemendiako lehen hamabostaldian, batez beste, 14 gradu erregistrau ebazan Igorreko estazino meteorologikoak eta.

Erredakzioa

Udea be, beroa izan da aurten, igaz be bai, eta aurtengo abuztuaren 23an, inozko tenperaturarik altuena erregistrau zan Igorren, 43,3 gradu, hain zuzen be. Prezipitazioen aldetik, sikua izan da 2023a: zemendiaren erdira arte 860 l/m² baino ez ziran jaso, igaz jasotakotatik (940 l/m²) hurra-go, aurreko 22 urteetako batez bestekotik, (1.363 l/m²) baino.

Bilakaerea (2001-2022)

Igorreko estazino meteorologikoan hartutako datuen arabera, tenperaturei jagokienean, 2002an batez besteko tenperatura 13,8 gradukoa izan zan; 2022koa barriz 15,2 gradukoa; beraz 1,4 graduko aldea egon da urte bi horreen bitartean. Urterik beroena, 2022a izan zan, freskoenak barriz, 2007a eta 2010a, urte horreetan, batez besteko tenperatura 12,9 gradukoa izan zan eta.



Temperatura maximoei begiratu ezkerre; batez besteko maximo altuenak 2022an izan zirala di-noe Igorreko estazinoko datuek, 20,7 izan zan maximoen batez bestekoa eta. Temperatura maximo epelenak, barriz, 2007an izan ziran, maximoen batez bestekoa 18,2 izan zan eta. Urte honeetako tartean, Igorren, tenperaturarik altuena 2012ko abuztuaren 23an erregistrau zan 42,2 gradu, hain zuzen be, eta 2022ko garagarriean izandako 41,9 graduak, bigarren altuena izan zan. Baina 2023ko abuztuaren 23an, marka hori gainditu zan, 43,3 graduko tenperatura egaz.

Batez besteko tenperatura minimoei jagokienean be, urterik epelena 2022a izan zan, batez besteko minimoa 10,3 gradukoa izan eban urte horrek eta. Minimoen batez besteko hotzena, 2012a izan zan, 8,4 gradukoa izan eban eta. Temperatura minimoei jagokienean, 2001eko abenduaren 6an, -6,8 gradu erregistrau ziran eta 2005ean, -5 gradu. Izozte egun gehien, 2005ean egon ziran, 33 hain zuzen be; 2022an 11 izan ziran, urteotako medianan.

Prezipitazioei jagokienean be, 2001 eta 2022aren artean, prezipitazio gitxi 2022an jaso zan, 940,9 l/m², batez bestekotik na-

hiko urrun, ze 22 urte honeetako batez bestekoa 1.363,3 l/m²ko da; hau da, 422,4 l/m²ko gitxiago.

Urterik euritsuena 2013a izan zan; orduan Igorren 1.925 l/m²ko jaso ziran.



2023 urterik beroena


Mikel Ugarriza

Estatu Batuetako Administrazio Ozeaniko eta Atmosferiko Bulego Nazionalak argitaratu dau 2023 urtea historiako beroena izateko probabilitate oso handia dagoala.

AEMETen ustez, 2023ko uda historiako hirugarren beroena bihurtu da datuak dagozanetik; lau beroaldi izan genduzan eta 24 egun iraun ebezan bero bolada honeek. Arratia bailaran oso beroa eta lehorra izan da, normalean baino hilebete bi gehiago iraun dau eta Igorren inoz neurtu dan tenperatura maximo historikoa izan dogu. Abuztuaren 23an 43,3°C neurtu ziran eta ohikoak ez diran tenperaturak izan doguz: urri lehenengoan 34,9°C neurtu ziran, urri bigarrean, 35,8°C eta zemendian, barriz tenperaturak nahiko normalagoak izaten dabiz, momentuz. Etorkizunari begira, udak gero ta beroagoak izango dira. NASAK ohartazaro dau beroaldiek peninsulan 50°C-ak gainditu ahal dabezala.

Beste gai garrantzitsu bateri erreparau ezkerre, oin dala egun batzuk, zemendiaren 17an gertatu da, hau da, 1940. urtetik gaur egun arte Lur planetako tenperatura 2°C baino gehiago igon da, industriaurre mailaren gainetik. Datu kezkarria da Parisko akorduan (2015) ebatzi ebela Lur planetako tenperaturearen igoera 2°C baino gitxiagokoa izan behar zala eta 1,5°C-ren bueltan egotea. Baina akordio hori ez da bete eta egoera bardinean jarraitzen badogu tenperatura globalak igoten jarraituko dau.

Amaituteko, aurtengo negua tenperaturearen aldetik zoritarrez normalean baino beroagoa eta euriaren aldetik Arratia bailaran euritsuagoa izango da. Negua, abenduaren 22an hasiko da, goizaldeko 4:27an eta ia 89 egun iraungo ditu. Gertaera astronomiko bi izango doguz: meteorito zaparradea, eta Perihelio (Lurraren eta Eguzkiaren arteko urteko hurbiltasunik handiena) eta Afelio (Lurretik Eguzkirako urteko distantzia handieneko puntua).



Arnasetik lehiaketan 112 sormen lan osatu dituzte gazteek

**BIDEOSORMEN LEHIAKETAREN
BIGARREN EDIZIOAK SORMENA SUSTATU
DU EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO
GAZTEEN ARTEAN.**

Euskaraz sortuko duten sortzaileak behar ditu euskarak, eta hauen arrastoaren atzetik euskararen arnaguneei bisita egin die "Arnasetik" bideosormen lehiaketak. Arnasa Gara ekimenak antolatutako lehiaketa honen bigarren edizio honetan arnaguneetan bizi diren 10-16 urte bitarteko gazteek hartu dute parte, bai eta arnaguneetako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeetako ikasleek ere. Irailan abiatutako "Arnasetik" sormen lehiaketak azaroaren 22an izan zuen amaiera gala, Zarautzeko Modelo Aretoan. Lehiaketaren bigarren edizioa oso arrakastatsua izan da, iaz baino 13 lan gehiago jaso direlarik. Adinaren arabera hiru kategoria izan ditu lehiaketak, eta kategoria bakoitzean erronka bati erantzun



Idiazabal, Azkoitia, Ataun eta Doneztebeko gazteak izan dira irabazleak.

Jasotako 112 lanetan jarri da marka berria eta haien kalitatea azpimarratzekoa izan da.

10-16 urte bitarteko gazteek parte hartu dute.

behar izan diote, guztiak euskararekin eta arnaguneetako hizkuntza-ohiturei zein bizipenel lotuak. Nahia Sillero influentzerra izan zen gidaria, eta Deñe musikariak hiru pieza eskaini zituen.

ARNASA GARA

Arnasa Gara ekimena euskararen arnaguneen garrantzia gizarteratzeko eta bertako herritarrak ahalduzteratzeko helburuarekin jaiotzen, UEMAK, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak sustatuta. Aurten "Arnasetik" sormen lehiaketa izan du ardatz ekimenak, eta arnaguneetako gazteek izan dituzte jomugan, haien

hizkuntza ohituren inguruan gogoeta egiteko eta haien sormena sustatzeko. Izan ere, euskaldun eduki sortzaile gisa ere funtsezkoak dira euskararen biziberritze prozesuan.

ETORKIZUNERA BEGIRA

Gazteek edukien sorkuntzarako duten grinaren erakusle izan da "Arnasetik" bideosormen lehiaketaren bigarren edizioa. Hori dela eta, Arnasa Gara ekimenak arnaguneetako gazteei gogoeta piztu eta hizkuntza ohituretan eragiten jarraitzeko asmoa du. Info gehiago: www.arnasagara.eus



EUSKEREAREN EGUNA

Abenduak 1, barikua

**17:15 Ipuin kontaketa umeentzat ludotekan
Ameli eta Xirrikituaren jostunen Amonaren istorioak.
18:15 Gaztelekuak antolatuta, umeentzako
tailerrak, murala egitea...
19:15 Txokolatea plazan.**

Abenduak 3, domekea

**12:00 Areatzako Argazki Lehiaketaren sari
banaketa udaletxean.
12:30 Kantu-poteoa herrian zehar Kilometrokan
taldeagaz.**

**AREATZAN BE EUSKERAZ
BIZI GURA DOGU!**





ABENDUAK 1
ESKOLAKO ATERPEAN

EUSKARAREN EGUNA

16:30 Jolasak eta tailerrak
18:30 Rap tailerra Xsakaragaz
19:45 Kittu taldeagaz erromerie

ARRASTI GUZTIAN ZEHAR JAN EDANA EGONGO DA
ERDU!!!



June Ansoleaga eta Zuriñe Zulaika: "Daborduko, uda hilebete luzatu da; urtaroak aldatzen dabilz"

EITB Euskal Irrati Telebistako Eguraldia saioko kideak dira June Ansoleaga kazetaria eta Zuriñe Zulaika meteorologoa. Eguraldiaren bilakaereaz jardun dabe.

Atzen urteotako fenomenoak eta aldaketak izan ditue gogoan biek be, eta, azaldu dabenez, gero eta ohikoagoak dira muturreko fenomenoak.

Erredakzinoa

Datuen arabera, euri faltea eta bero handia izan da 2022 eta 2023an. Egia da?

June Ansoleaga: Bai. Atzen urteak oso gorabeheratsuak dabiz izaten euri eskasiarengatik, batez be Euskal Herriko barrualdean, hegoaldean. Bestelakoak diran muturreko fenomenoak daukaguz. Urtaroak aldatzen dabilz. Esate baterako, ez daukagu negu gordin-gordinik edo udabarri euritsurik. Nahiko epelak dira atzen urteotako lehen hilebeteak, eta geroz eta uda luzeagoak daukaguz.

Luzatu egin uda?

J.A.: Daborduko, hilebete bat, bai. Uda ez da amaituten urri lehenengoaren 21ean; normalean urri bigarrena be oso beroa izaten da. Adibidez, albiste da aurtengo urri bigarrena inozko beroena izan dala mundu mailan. **Kezkagarria da egoera?**

J.A.: Argi dago, eta ez dogu bakarrik guk esaten, baita mundu mailan be. Gauzak aldatzen ez badira eta, esaterako, kutsadura maila jaisten ez bada, datozan urteak gero eta beroagoak izango dira, eta honek muturreko egoera gehiago ekarriko ditu. Euskal Herrian be hasi gara urterik urte aldaketa nabaritzen.

Muturreko fenomenoak aita-

tuta, uda bero baten ostean, Ciaran depresinogunea le-

hertu zan, bat-batean.
Zuriñe Zulaika: Ciaran depresinoguneak haize ufada oso gogorak, itsaso oso zakarra eta euria ekarri euskun zemendiaren hasieran, eta baita lehenengo edurra be. 150 kilometroko haize ufadak be izan genduzan, eta hamar-hamaika metro inguruko olatuak. Ziklogenesi leherkorra izan zan, oso denpora gitxian sortua. Atlantikoan, esate baterako, 48 ordutan egin eban 5.000 kilometroko ibilbidea.

Gero eta ohikoagoak izango dira holango fenomenoak?

Z.Z.: Betidanik izan doguz ekaitza handiak eta uriolak, baina tenperaturearen igoereagaz eta hezetasunaren handitzeagaz, muturreko egoera gehiago izango dira.

Ekaitzak eta euri jasak bai, baina daborduko ez dau horrenbeste zirimiru egiten...

J.A.: Egia da. Gero eta gitxiago dogu lehengo zirimiru eterno hori. Nafarroako kasua aztertu dogu, adibidez, eta 1950. urtetik oin arte ikusi dogu Kantauriko isurialdean %20 jeitsi dala prezipitazio kopurua.

Bada, hor dagoz lehorreak be. Badago nabarmentzeko zeozer?

J.A.: Arabako hegoaldean eta

Nafarroako erdikalde-hegoaldean nabari da gehien ur eskasia, eta, ondorioz, lehorrea; hain justu, Arabako Errioxa inguruan eta Nafarroako Erriberan. Tenperatureari jagokonez, udan, barbarako, bero boladarik handienak leku horreetan erregistratu dira, 40 gradura artekoak.

Heldu da desertifikazioa eremu horreetara?

Z.Z.: Oindino urrun gagoz Iberiar peninsulako barrualdeko lekuak alderatuta, baina egia da datozan urteetan egoera larritu egingo dala.

Suteak be badira; gero eta

"Betidanik izan doguz

ekaitza handiak

eta uriolak, baina

tenperaturearen

igoereagaz eta

hezetasunaren

handitzeagaz,

muturreko egoera

gehiago izango dira"

Klima datuak aztergai Tokikom taldeko hedabideetan

Tokikom taldeko hedabideek, tartean BEGITUK, alkarlana egin dabe tokian tokiko klima datuak aztertzeko. Alkarlan horren emaitza izan dira hona dakarguzan artikulua eta alkarrizketea. Hego Euskal Herri osoko 20 urteotako datuak jaso eta hedabideen eskura ipini dauz Tokikom euskerazko toki komunikabide taldeak, hedabide bako txak bere eremukoak aztertzeko. Datu horreekaz, BEGITUK, Igorren jasotako prezipitazio eta tenperaturearen datuen lanketea egin dau. Datu horreei testuingurua emoteko adituak alkarrizketatzea komeni du dala-ta, June Ansoleaga eta Zuriñe Zulaika alkarrizketatzea ebatzi eban Tokikom; eta alkarrizketa hori be egin dau datuen lanketea egin daben hedabideentzat.

ugariagoak dira Euskal Herriko leku batzuetan.

J.A.: Bai. Adibide bat emotearren, 2022an Nafarroan izan ziran baso suteak aitatuko neukez. San Martin Unx eta Uxue inguruan sute ikaragarriak biztu ziran. Egun be-rean bost baso sute, hain justu. Ez da batere ohikoa, baina badirudi gero eta baso sute suntsigarriagoak izango doguzala. Atzen baten, danak dauka loturea: zenbat eta tenperatura altuagoak izan, orduan eta aukera gehiago baso suteak biztuteko. Ha-ta guzti be, ez dau esan gura urtero gertatuko danik.

Egoera hau guztia iraultzerik badago?

Z.Z.: Tenperaturearen igoerea, urietako kutsadura eta biodibersidatearen galera kezkatu behar gaituan gai bat da; gizakiak sortutako isurien murrizketa handia izan behar da.

J.A.: Atzera ezin dogu egin, baina neurriak hartu daikeguz etorkizunera begira; besteak beste, gizakiak sortzean dauan kutsadura zelan edo halan murriztu behar dogu, baita gure egunerokoa aldaketa txikiak egin be; horrezaz gainera, biodibersidatea pentsau behar dogu eta gure uriak birpentsau behar doguz. Gobernuak hartu behar dituen ebatziak dira asko, baina guk geuk be aldaketa txiki-handi horreek egin daikeguz.



June Ansoleaga eta Zuriñe Zulaika.

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

ORTOMOBILITY



Zure mugikortasuna hobetuz
Bizkaiko esposizio handiena, zugandik gertu!



- SALMENTA ETA ESPOSIZIOA
- ZERBITZU TEKNIKOA
- TAILERRA
- ETXERAKO ZERBITZUA
- ADINEKO PERTSONEN ZAINZTA ZERBITZUA ETXEAN

**%5eko
deskontua***
ORTOMOBILITY

Txartel hau moztuta ekarri eta %5eko deskontua edukiko duzu, dendako edozein artikulutan, lehenengo erosketan.

*Eskaintza hau ballagarria da abenduaren 15era arte.



www.ortomobility.com
info@ortomobility.com
Mendieta 1 Lemoa BIZKAIA
946 738 203

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus





EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA

Zeanuriko Udala



**Euskararen aurkako
oldarraldiaren aurrean,
erdu gurera!**

Euskeraren egune

ABENDUAK 1

18:30ean **Eriz Magoa**
Kultur Etxean (dohainik)

ABENDUAK 2

20:00etan **Fermin Muguruzaren**
Bidasoa
Kultur Etxean

ABENDUAK 3

12:00etan **Euskal kantutegiaren**
inguruko tailerra
Kultur Etxeko goiko gelan

13:00ean **Kantu poteoa**
Eingo taldearen eskutik Kultur
Etxetik hasite

19:00etan **Hondamendia**
Kultur Etxean (dohainik)



Igorren








ETORRI AREATZARA EROSKETAK EGITERA!



**Azaroaren 27tik
otsailaren 3ra**



- 1

EROSI ZEURE BONODENDA 20 EUROTAN GAUZAK DENDAN

 - Aurkeztutako NAN bakoitzeko gehienez 3 bono erosi ahalko dira (16 urtetik gorakoek).
 - 600 bono.
- 2

BONOAK 25 EUROTAN TRUKATU AHAL DITUZU BONODENDA SALTOKIETAN

BONOA behin bakarrik erabili ahalko da, hiru gai kontuan hartuta:

 - A) Ordaindu beharreko kopurua 25 euro baino gutxiagokoa bada, ez da dirurik itzuliko.
 - B) Bonoak metatu daitezke.
 - C) Debehatuta dago bonoen truke dirua jasotzea.

BONODENDA LEKUAK

Aliprox Areatza, Andikoa harategia, Gauzak denda, Arantza Zamalloa farmazia, Areatzako estankoa, Denda Barri. + Ke... PAN okindegia eta Vade retro ile-apaindegia

✓ Gizarte- eta osasun-arreta jarraitua eta pertsonalizatua



ARRATIAKO EGOITZA

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO HERRI ERAKUNDE AUTONOMOIA



begitu **20** urte

**BAIETZ
30 LAGUN
BARRI EGIN!**

2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€




*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.



ZORNOTZA
CENTRO INTEGRADO
DE FORMACIÓN PROFESIONAL
LANBIDE HEDEKATU
IKASTETZE INTEGRATUA






LANDUNEI ETA LANGABEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK
HASIERA: ABENDUA - URTARRILA

IKASTAROA	ORDUAK
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK (praktikak enpresan)	
SSCS0208 Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan, MF1016, MF1017, MF1018, MF1019	370
FABRIKAZIO MEKANIKOA	
UF1626 Karbono-altzairuzko TIG soldadura	90
UF1627 Altzairu herdoilgaitzezko TIG soldadura	90
UF1624 Soldadura karbono-altzairuzko xafra eta profilez estalitako elektrodoekin eta oinarritzko elektrodoekin	90
INSTALAZIOA ETA MANTENIMENDUA (praktikak enpresan)	
IMAQ0108 Ekipo industrialaren mantentze lanak eta muntaketa mekanikoa, MF0116, MF0117	510

Aurreinskripzioa zabalik (ikastetxean eta/edo telefonoz) 688 665 300

OHARRA: Taldeak sortu ahala, hasiko dira ikastaroak
Lanbideren onarpenaren zain





Urritxe auzunea, z/g · Tfno: **688 665 300 · 946 730 251**
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)
e-mail: maranburu@fpzornotza.com · www.fpzornotza.com



365 EGUN

EUSKARAREN

ABENDUAK 3 EGUNA

11:30 ETATIK AURRERA

TALOAK EGITEKO TXOKOA
KAMISETAK ETA TXAPAK MARGOTZEKO TXOKOA
KARAOKE TXOKOA

12:30

GAZTAINA ERREAK
KALE ANIMAZIOA JON ETA OLATZEKIN

13:30

EKITALDIA

19:00

IRATI PELIKULA













EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA
abenduaren 3a

Bediako Udala






Arantzazun, abenduaren 3an

11:00-13:00 Murala margotu eta
txapa tailerra

13:00 Manifestuaren irakurketa,
argazki lehiaketaren sari banaketa
eta euskal kantak trikipotean



Arantzazuko Udala eta
Jai Batzordea



Abenduaren 3an eta urte osoan ekingo deutsagu **EUSKERAZ**



DIMAKO UDALA

Zaindu dezagun euskara urteko 365 egunetan.



MENDI LASTERKETEAK

Ander Iñarrak eta Oihana Azkorbebeitiak irabazi eben Lemoatx Traileko lasterketa nagusia

Erredakzioa

Iñarrak 02:00:45 denporan egin ebazan Lemoatx Traileko 24 kilometroak, eta Azkorbebeitiak 02:33:39an gelditu eban kronoa. Gizonezkoen podiuma, Jon Betolazak eta Jokin Etxabek osatu eben; andrazkoena barriz, Oihane Unzaluk eta Zuriñe Frutosek.

Eguraldiak lagunduta eta giro ederrean, jokatu zan Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako Lemoatx Trail mendi lasterketako zazpigarren edizinoan, zemendiarren 19an. Lasterketa bi egon ziran, 24 eta 16 kilometrokoak, eta



Miren Ozerin jauregi erdian.

lehia bako beste martxa bi.

Hamasei kilometroko lasterketea, Ander Izak eta Miren Ozerin jauregi zeanuriztarrak irabazi

eben. Unai Minteguik eta Andoni Uzkiak egin eben bigarren eta hirugarren, hurrengo hurrengo, gizonetako eta Itsasne Urkiagak eta Estitxu Azpitartek andrazkoetan.

Ganzabal sariak

Ganzabal Mendi Taldeak, saria emon eutsen distantzia bakoetara bere bazkideetako lehenengoari. Hogetalau kilometroko lasterketan, Mikel Gonzalez eta Tamara Txikon izan ziran helmugara heldu ziran Ganzabal Mendi Taldeko lehenengo lasterkariak; hamasei kilometrokoan barriz, Ander Asondoa eta Deiene Gurtubai.

FUTBOLA



Arratia A eta Santutxuren arteko partidua Urbietan.

Aurrera doaz futboleko liga txapelketak

Gizonezkoen Arratia A seigarren postuan dago eta partidu bakarra galdu dau ligan, B taldeak osteratzen hiru partiduetan 7 puntu lortu ditu eta hamaikagarren da sailkapenean. Andrazkoen A taldea zortzigarren postuan dago atzen bi partidua galdu ostean eta B taldeak atzen 5 jardunaldietan ez dau partidurik galdu eta seigarren postuan dago. Lemoako Harrobi osteratzen bederatzigarren dago sailkapenean.

Erredakzioa

Gizonezkoen Arratia A taldeak zemendiko atzen astegoienean jokatu eban Urbietan Santutxu taldearen kontra eta bana bardindu eban. Arratiarren bardinketearen gola luzapenean sartu eban Paul Garaigordobil dimoztarrak. 10 jardunaldien ostean 17 puntu ditu Arratia Ak eta seigarren postuan dago. Datorren partidua Galdakao A taldearen kontra jokatu dau etxetik kanpo abenduaren 3an, eguerdiko 12:30ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak zemendiko atzen astegoienean Ibarsusi taldearen kontra jokatu eban etxetik kanpo eta atsedendira 1-0 galtzean heldu baziran be bigarren partean gol bi sartuta buelta emon eutsien markagailuari. 10 jardunaldien ostean Arratia Bk 12 puntu ditu eta hamaikagarren dago sailkapenean. Datorren partidua Urbietan jokatu dau La Merced A taldearen kontra abenduaren 2an, arrastiko 17:45ean.

Andrazkoen Arratia A taldeak, pasau dan hile erdiko astegoieneko geldialdiaren ostean, 25ean jokatu eban etxetik kanpo Logroñes taldearen kontra eta 4-0

galdu eban. Hamaika jardunaldien ostean Arratia A zortzigarren postuan dago eta 17 puntu ditu. Datorren partidua Urbietan jokatu dau Tolosa taldearen kontra abenduaren 3an, eguerdiko 12:30ean.

Andrazkoen Arratia B taldeak be etxetik kanpo jokatu eban atzen jardunaldian eta bana bardindu eban Sestao River taldearen kontra atzen minutuetan sartutako gol bateri esker. Zortzi jardunaldien ostean 12 puntu ditu Arratia Bk eta zazpigarren dago sailkapenean. Datorren partidua Derio A taldearen kontra jokatu dau Urbietan abenduaren 2an, arrastiko 15:30ean.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik zemendiaren 26an jokatu eban Arlonagusian Loiu A taldearen kontra eta 2-0 irabazi eban. 10 jardunaldien ostean Lemoako Harrobik 14 puntu ditu eta bederatzigarren dago sailkapenean. Datorren partidua barriro jokatu dau Arlonagusian eta derbia izango dau lider dan Amorebieta B taldearen kontra. Abenduaren 3an jokatu dau, arrastiko 16:30ean.

ZERBITZU ETA ESKAINTZARIK ONENAK :

MEREZI DUZU

OPARI LEZ KATEBAT

GASOLINAZKO MOTOZERRA MS 170

HAIZE-MAKINA ELEKTRIKOA BGE 71

1.499€

BATERIAZKO ERATSIGAILUA SPA 130

BATERIA ETA KARGAGAILUA BARNE

GARAJE FELIPE

Garbe, 2
48140 Igarre (Bizkaia)
Tel.: 946 736 339
garajefelipe@euskalnet.net

Montorra auzoa, 1 behe
48340 Amorebieta (Bizkaia)
Tel.: 946 309 039
garajefelipe2@telefonica.net

WWW.GARAJEFELIPE.STIHL-TIENDA.ES

PUBLIZITATEA

ESKALADEA

Alex Txikonen izena daroa Lemoako rokodromo eta boulder barriak

EAEko rokodromo publiko handiena da Lemoakoa eta *tension boardari* esker, teknologia aldetik barrizalea da.

Erredakzioa

Zemendiaren 21ean estreinatu zuten Lemoan Alex Txikon Rokodromo, alpinista lemoztarraren parte-hartzeagaz. Holan, EAEko rokodromo publiko handienak bere ateak zabaldu ebazan. Esther Iturrioz alkateak zein Txikonek, bat egin eben "punta-puntako" instalazioa dala esatean. Izan be, Euskal Herriko lehenengo *tension board*-a be badauka, boulderraren aldats negatiboa erreguletao makinea.

Horrezaz gainera, tamainu aldetik be ikusgarria da Alex Txikon Rokodromo. Sei metroko zabalera eta hamar metroko altuera dituan horman, sei eskaletako bide ditu. Gainera, aldats positibo zein negatiboko hainbat zati be badaukaz. Atzenik, erregulau daiteken boulderra dago, 17,70 metroko zabaleraagaz eta 4,5 metroko altueraagaz. Rokodromoaren lehen zatia igazko abenduaren amaitsu zana instalatu.

Herriari rokodromo barria aurkeztuteko ekitaldian Iturrioz alkateak eta Txikonek hartu eben berbea. Honekaz batera, Carlos



Sergio Bizkaiko Foru Aldundiko kirol zuzendaria eta eskalataile ugari egon ziran, Itziar Zabala dimoztarra tartean. Iturriozek azaldu eban, instalazio barria "ikaragarria izango dala inguruko eskalataileak hurbildu eta zelan ez, zaletasun barriak esnatuteko". Txikoneri zuzenduta, alkateak esan eban: "Lemoako seme eta kirolari nekazina; persona inplikaua bai jasagarritasunagaz bai personakaz; zure gizatasun eta Lemoa mundura zabaldu dozulako, rokodromo honek zure

izena eukiko dau".

Alpinistek barriz, keinua eskertu eta aprobetxau eban, Ganzabal Mendi Taldea bere 50. urteurrenean zorionduteko, "gu hemen gagozan puntuan gagoz Ganzabal Mendi Taldeari esker". Jarraian, ekitaldira hurbildu ziran ume guztiengana zuzendu zana, "badakigu futbola eta kirol asko daukazuezala, baina hau oso polita da, berezkoa eta naturala". Hau entzun, eta ume guztiak urten ziran galapan eskalatzera.

MENDIA

Alex Txikonen *Manaslu invernala* liburua salgai dago eta Annapurna igoteko espedizinoari ekin deutso

Erredakzioa

Lemoako alpinistek *Manasluko* igoerari buruzko liburua aurkeztu eban zemendian. Sua Edizinoak-ek argitaratu dau *Manasluko invernala* Alex Txikonen liburua. Oin, neguan Annapurnaren tontorra (8.091 m) zapaltzeko espedizinoari ekin deutso.

Argazki handiakaz, liburu honek Txikon *Manaslu* mendiko gailurren eroran eben hiru espedizinoak kontetan ditu, eta bere bildur eta sufrimentuen, arriskuaren eta minaren, bere barru-barruko sentimientuen, barreen, pozen eta une hunkigarrien barri emoten dau. Tontorrean sentidutako emozinoak, ez leukela esango poza danik dino Txikonek, "bizitzako une bat zan, heriotzatik hurbil zagozan horree-

takoa" baino.

Urte asko daroaz Txikonek neguko espedizinoak egiten. "Hogei urte baino gehiago espedizinoak burutzen eta hamar urte baino gehiagoko neguko espedizinoen ondoren, beharbada amaierara heldu naz? Agian nahikoa da?" galdetuten deutso bere buruari Txikonek liburuan eta bere "bidea bilatu eta topau" behar dauala barri dino. Ha-ta guzti be, oingo neguan be 1987tik neguan inork zapaldu ez dauan Annapurnako tontorrera heltzean saiatuko da.

Annapurnara neguan

Zemendiaren 29an abiatu zana Nepalerrantza Txikon Annapurna igoteko asmoz. Annapurna neguan arrakastaz amaitu daben espedizino bi baino ez dira erre-

gistrau. Lehenengoa, 1987ko zezeilaren 3an izan zan. Jerzy Kukuczka eta Artur Hajzer poloniarrek gailurrera heldu ziran. Urte berean, Noboru Yamada, Toshiyuki Kobayashi, Yasuhira Saito eta Teruo Saegusa japoniarrek be, abenduaren 20an zapaldu eben Annapurnako tontorra, baina garbizaleentzat ez litzateke neguko tontorra izango, negu astronomikoa hasi baino egun bat lehenago lortu zan eta.

Txikonegaz espedizino baten baino gehiagotan parte hartu dauan Simone Moro be, saiatu zan 1997an neguan tontor hau egiten, eta bizirik atera zan espedizino bakarra izan zan. Anatoli Bukreev eta Dimitri Sobolev taldekideek bizia galdu eben edurjausi batek harrapauta.

PELOTEA

Miriam Arrillaga izango dau aurkari Amaia Aldaik lau t'erdiko buruz-buruko txapelketako finalurrekoan

Erredakzioa

Aurrera doa Emakume Master Cup zirkuituko aurtengo Master Laboral Kutxa Lau t'erdiko Txapelketea. Amaia Aldaik final-laurdenetako partiduan Leire Galeanoren kontra 22-10 irabazi ostean, abenduaren 6an jokatu dau finalurrekoa Abadiñon. Miriam Arrillaga izango dau aurkari Matienako Udal Pilotalekuan, 12:00etan.

Galeanoren kontrako partiduen ostean, Aldaik adierazo eban erraz irabazi ebal: "Ni nire jokoa egiten ibili nintzan, aurrekaldean, sake eta erremateagaz tantuak amaituten

eta egia esan partidua ez jatan momentu baten be ez gogortu". Holan, Dimakoak gehitu eban final-laurdenetako esperientziaren ostean, txapelketan aurrera egiteko konfiantzeagaz ikusten daua bere burua. Lortu ezker, hirugarrenez jantziko dau txapel hau Aldaik.

Diario Vasco Txapelketea

Master Laboral Kutxa bakarrik ez, pelotari dimoztarra Diario Vasco antolatutako txapelketea be badabil jokatuten. Daborduko, finalurrekoetarako sailkatu da Aldai eta abenduaren 2an jokatu dau Tolosan, Leire Gararen aurka, 16:00etan.



ERRUGBIA

Arratiko Zekorrek 17-28 Urgozo

Erredakzioa

Aste biko atsedenaldiraren ostean, zemendiaren 18an bueltau zan Ekin Eraiketarako Arratiko Zekorrek taldea ligako partiduetara. Etxean, San Txismen, izan zan partidua baina Urgozo talde zornotzara urten zan garaile, 17-28 amaitu zan partidua. Ekaitz Duñabeitia entrenatzaileak azaldu eban, partiduan bat egiten hasi ziran aratarrak baina bigarren zatian egindako akatsak ordaindu ebezan.

Izan be, lehenengo zati osoan aratarrak nagusitu ziran, "17-7 ira-

bazten joan ginan eta partidua gure eskuetan egon zan lehenengo 40 minutuetan". Baina deskantsuaren ostean, zornotzarako entseguak egitera urten ziran eta buelta emon eban partidua. "Denpora guztian egon zan jokoa gure zelai zatian eta pasetea lortzerakoan, akatsak egin genduzan, guk galdu genduan partidua" halanda be, Duñabeitia pozik agertu da lehenengo zatian egindako jokoa.

Datorren partidua abenduaren 2an jokatu dau dabe etetik kanpo, Gamarran, Gaztedi Rugby Taldearen kontra, 15:00etan.



Arratiko eta Urgozoren arteko partidua. Argazkia: Maialen Labandibar.

KOTXEPIN

Kotxepineko bazkietza kanpaina martxan dago

Erredakzioa

Kotxepin lagun eta Kotxepin txiki izenakaz Lemoako Kultur Etxeko bazkietza kanpaina ipini dau martxan Lemoako Udalak. Kotxepineko bazkide egiten diranek %30eko deskontua izango dabe 2024ko emonaldietan. Titular bakotzak beherapena

daukan sarrera bakar bat eskuratu ahalko dau. Bazkietzea www.lemoa.net webgunean egin behar da.

Umeek be bazkide izateko aukerea daukie, Kotxepin txiki bazkietzeagaz. Hamahiru urte artekoek, 10 euro ordaindu behar dabez urteko eta 14 urtetik gorakoek, barriz, 20 euro.



ZINEKLUBA

Cleo de 5 a 7 filma ikusgai Igorreko Zineklubean



Erredakzioa

Abenduaren 15ean, 20:00etan izango da Igorreko Zineklubak emongo dauan filma, bertan karteldegitik kanpo dagoan pelikula interesgarriren bat eskaintzen da hilean behin, Lasarte Aretoan.

Arllette Varda (Ixelles 1928-Paris 2019) Agnès Varda moduan ezaguna dan zuzendariaren 1962ko *Cleo de 5 a 7* pelikulea izango da urte amaiera honetan ikusi ahal izango dana. Varda, frantziar argazkilari eta zinemagilea izan zan. *Nouvelle vague* mobimentuko kideari, 2002an

Frantses Akademiak René-Clair Saria emon eutsan. Oraintsua-go, Donostia Saria emon eutsien 65. Donostiako Zinemaldian, 2017an.

"Cleo, kantari gaztea, artaga dago azterketa mediko baten emaitzen zain. Kartak irakurten dituan igarle batek minbizia daukala eta hil daitekela adierazoten deusanean, bere kezka areagotu egiten da. Bere denpora bete guran, emaitzen zain, Cleok soldadu gazte bat ezetuten dau, Aljerian soldadiskea egitera abiatzear, heriotzearen bildur dana" dino sinopsiak.

FILMA

Zinebin estreinau zan *Aire!* eta abenduan Artean, Areatzan eta Zeberion ikusi ahal izango da

Erredakzioa

Aire! dokumentalak, Maurizia Aldeiturriagarengan inspiratuko musika pieza bat sortzeako gazte talde baten sormen prozesua jarraitzen dau. Taldea, alkar ezetuten ez eben Katalunia eta Euskal Herriko musika ikasleek osotuten dabe; Arratiako Musika Eskolako ikasleak, tartean. Mauriziaren ilobei alkarizketak be jasoten dauz pelikuleak eta pandero-jolearen bizitzan garrantzitsuak izandako Zeberio eta Arratiako parajeak be agertzen dira bertan. Zinebin estreinau zan, zemendiaren 12an eta abenduaren 16an, Artean, 17an Zeberion eta 28an Areatzan ikusteko aukerea egongo da.

Gentzane Martinez de Osabak zuzendu dau filma. Zinemaren munduan egiten dau behar bilbotarrak: kamerari, ekoizpenean eta zuzendari batez be. *Aire!* ez da izan zuzendu dauan lehenengo filma; aurretik zuzenduta eukazan film bi, *Señales de vida* eta *La cocina inacabada* beste lagun bigaz batera, baina hau izan da bakarka zuzendu dauan lehenengoa.

Zelan joan da estreinaldia?

Guretzat Zinebin estreinatzea oso inportantea zan hainbat gauzaren gaitik. Niretzat garrantzitsuena zan jakitea gazteek zelan hartzean eben pelikulan agertzen dana, parte hartu dabenek ez eukielako ikusita eta estreinaldian ikusi ebelako lehenengo aldiz. Euren erantzuna, erreakzioa zelango zan ikustea inportantea zan guretzat. Eta oso gustura egon dira, asko gustau jakie pelikulea, euren burua ondo ikusi dabe... Alde horretatik, bikain.

Eta gero Zinebi lango zinemaldi baten estreinatzeak be garrantzia

handia euki dau guretzat: gure jaialdia da, bizkaitarrak gara. Ekoiztetxe biak (Marmoka Films eta Bideografik Ekoizpenak) bizkaitarrak gara. Zinebin estreinatzea oso aukera polita izan da eta asko gozatu dogu. Gainera, gazteak etorri dira, euren familiak be bai, kultura munduko jentea, euskarearen inguruko... Mauriziaren familia ezin izan da etorri, Maite eta Miren Bernola dira filmearen protagonistak baina ama hil jakie eta ezin izan dira etorri estreinaldira.

Noz ikusi ahal izango dogu filma gurean?

Momentuz lotuta dagozanak dira abenduaren 16an Artean, 17an Zeberion eta 28an Areatzan. Lemoak, Igorrek eta beste herriren batek be gura dau pelikulea emon, baina fetxarik ez dago. Aukera asko egongo dira pelikulea ikusteko.

Dokumental bat da eta areto komertzialetan emotea gatxa izango da, ezta?

Dokumentalen zirkuitua, normalean, izaten da lehenengo jaialdian mobidu: zine musikalen jaialdian, etnografikoetan, gazteak zerikusia daukien jaialdian eta abar. Bitartean, herrietako aretoetan be bai eta zinema areto batzuetan be, ipiniko dabe pelikulea. Zergaitik ez.

Hurrengo pausua, bideo plataformak dira: Filmin, Primeran eta abar, eta gero telebistan, EITBn edo TVEn. Badaukaguz gauza batzuk itxita; beste batzuk, egiten gabiz eta beste batzuk ez dakigu. **Jaialdi zirkuituko lehenengoa izan zan Zinebi.**

Bai. Zinebi, dokumental eta film laburren jaialdia da eta *Aire!* dokumentala da. Izen handiko jaialdia da Zinebi, bai estatu mailan bai nazioartean, Europan batez be, eta guretzat erakusleku bikaina.

Sormen prozesua bera kontetan dau filmak. Zelan joan da hainbeste gazte sortzaileraren arteko alkarbizitza eta lana?

Balorazioa sano ona da, zentzu askotan. Ez bakarrik pelikula zelan amaitu dogun, baita prozesuan egin dogun, ikasi dogun eta gozatu dogunaren balorazioa oso ona da. Prozesu luzea izan da, 13 gaztegan lan egiteak badauka bere konplikazioa edo bere zailtasuna. Ekipoa barriz, txikia zan; kamera bategaz grabau dogu eta mikrofonista bategaz. Gainera gazteak jatorri desbardineteakoz ziran eta alkar ezetuten ez ebenak.

Nik esaten dot gazteek bizi izan dabela sormen prozesu bat, baina baita guk geuk be beste sormen prozesu bat bizi izan dogula, zer bilatzen genduan bagenkialako gitxi gorabehera baina zelan, ez. Ez genkian zelan erantzungo eben, lortuko genduan ala ez... Dana dala, dokumentaletan danak balio dau: ondo urten zein txarto urten. Baina gura genduan dana ondo joatea, jakina, eta holan izan da.

Mauriziaren irudia nahiko eza-guna da, Mauriziari buruzko ezer barririk badakar?

Mauriziaren inguruan, barri-barri gauza handirik ez. Igual detailearen batzuk, Mauriziaren izateko moduari buruz, familiak kontautakoak, edo pasadizuak.

Nik uste dot barriak dirala traetaera eta ikuspuntua: gazteen bizipenetatik, Mauriziaren irudiak pelikulea besarkatzen dau. Gazteak dagoz hor, galderak egiten ditue eta Mauriziaren lekuak ezete eta bisitetan ditue.

Leku horreetan jotzen dabe musikea?

Bai. Esate baterako, Mendigoikoan. Maurizia askotan joaten zan bere panderoagaz Atxondoko Mendigoikoa jatetxera. Lekua bardin-bardin mantenduten da. Iraganera bidaia egin izan bazendu legez.

Musika aldetik be planteamentu originala dauka *Aire!*!

Bai. Carlos Sagi eta Iraide Ansorena buru-belarri egon dira hor gazteak batera. Talde lana izan da. Argazkigintzan Eukeni Arriortua igorretarra egon da eta euki dau askatasuna gauzak bere moduan egiteko. Taldean egindako pelikulea izan da.

Gazteek pieza bakar bat jo dabe. Bederatzi minutuko abesti bat, beste hainbat abestiren zatiaz eregitakoa.

Badaukazu beste proiekturik martxan?

Zuzendaritzan momentuz ez. Normalean ekoizpenean jarduten dot, ekoizpen ejekutiboan. Horretan bai, hainbat proiektu daukadaz. Baina film baten zuzendari lanetan diharduzunean, proiektu bakarra izan behar da. Klaseak be emoten dodaz unibersidadean... Momentuz ez naz beste proiektu baten sartuko.

IPUINAK

Amaia Egidazu ipuin kontalaria izango da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean

Erredakzioa

Abenduaren 11n, 18:00etan, 4 eta 8 urte bitarteko umeentzat *Ipuin malutak* izeneko ipuin kontaketa saioa eskainiko dau Amaia Egidazuk. Ipuin kontalaria izateaz gainera, idazlea eta ilustratzailea da eta 2021ean, berak idatzi eta ilustratutako *Dorotea* liburuagaitik Etxepare Saria jaso eban.

Kontalariak "hitzen soinetan erreparatzeko, errimak bilatzeko, berba jokoak egiteko eta, azken finean, hizkuntzeagaz olgetako joerea" daukala dino eta "liluratu egiten nau ipuinen bidez umeakaz lortzean dan konexinoak, euren arpegiek, begiradek, ideek...".

Saioak hiru ordu laurden eta ordubete bitarteko iraupena dauka.



Amaia Egidazu.

IKASTAROAK

Igorreko Kultur Etxeko ikastaroetan izena emon daiteke abenduaren 15era arte



Erredakzioa

Kultur Etxeko ikastaroetako bigarren hiruhilebeterako izen-emotea zabalik dago abenduaren 1etik 15era.

Ikastaroak urtailetik martira arte izango dira eta aurreko hiruhilebeterako ikastaroei jarraipena egingo deutsee. Holan, *Akrobazia berriak* 7 eta 12 urte bitartekoentzat, *Akrobazia aurreratuak* 7 eta 12 urte bitartekoentzat, *Gazteen akrobaziak* 12 eta 30 urte bitartekoentzat, *Txi-kung*, *Literatura tailerra*, *Hipopresiboak*, *Arte plastikoak* eta *Yoga* ikastaroek osotuten dabe eskaintzea.

ANTZERKIA

Hondamendia antzezlanana izango da abenduaren 3an Igorreko Kultur Etxean

Zaldibarko zabortegean gertatutako luizia abiapuntu hartuta, konsumo gizartearen inguruko hausnarketea proposatzen dau *Hondamendia* antzezlanak.

Erredakzioa

Harkaitz Canok idatzitako eta Ximun Fuchs-ek zuzendutako lana da eta abenduaren 3an arrastiko 19:00etan Lasarte Aretoan egongo da ikusgai. Sarrerea debaldekoa da. Interpretazino lanetan izen ezagunak izango dira Igorren: Ander Lipus, Ane Sagüés, Rhut Guimerà, Jon Ander Urresti, Maialen Urresti, Maite Larburu, Manex Fuchs eta Eneko Gil.

Sinopsia

"Zaborra metafora bat da batzuetan. Baina ze metafora da kiratsa darion hau?"

2020ko zezeila: zabortege baten kolapsoak langile bi desagerrarazo ditu azpian. Esan patua izan dala. Esan zoria izan dala. Edo haeren senide txiki eta apala, suerte

txarra. Ardura eta erantzukizuna maskaratzeko mozorroak be izan daitezke, ordea, hondamendiari jarritako berbok. Batzuentzat ez beharra dana, istripua da beste batzuentzat.

2020ko martia: covid a heldu da. Osasun arazo batek bazterrean itxi dauan irrati-esataria, Zaldibarko zabortegearen luiziari berbak emoten saiatuko da. Egia, egitate, kontakizuna... Baina zelan adierazo samina mundua pandemia baten menpe izoztu danean?

Zelan emon leikio zentzua bere lanari eszenatokira igoteko grina galdu ez dauan jantzariak, absurdoak funtsezko oinarriak irauli dituanen?

Ospitalean bertan, bere lana ahalik eta txukunen egiten saiatzen dan erizain arretatsuak, lortuko ete dau onik ateratea?

Bitartean, Zaldibarren, aita galdu dauan alabeak eta senarra galdu dauan andreak erreskate zerbitzuek hilotza noz topauko zain jarraitzen dabe, hilebeteak joan eta hilebeteak etorri.

Berba hoberik topau ezean 'hondamendia' deitu deusagun horrek ataka larrian ipini ditu guztiak, halako gertaera lazgarri baten ondotik ezer okerragorik etor ezin daiteken ustean.

Pantailek hartu dabe berbearen lekua eta zaborrak gure bizien errastu bihurtu dira. Langile bat hiltzen da beharrean. Astero.

2022ko zezeila... Zabor meta erraldoian azarrika, bide-seinale modura erabiliko doguzan galdera ikurrak besterik ez doguz topau. Eta bizitzaren balizko zentzuaren gainetik, bizitza bera huts-hutsean maitatu behar dogula dinoan intuizioa".



DUNBA

Gau Baltza

Zeberriko eskolako LH6. mailako ikasleak

Kalabazak hustu, kandelak biztu, trapu zaharrak jantzi...

Urri bigarrenaren 31n gure inguruan Gau Baltza ospatuten da. Ohitura zaharrak berreskuratuz, jaiak berrasmatzen gabiz Zeberriko eskolan eta herrian.

Urteak dira Gau Baltza edo Arimen Gauaren taupada hartzean hasi ginala; hasikerako urteetan Juan Manuel Etxebarriagaz gaiaren inguruan lanketa zabala egin genduan, adineko herritarrek be euren bizipenak kontau euskuezan. Lanketa zabala egin ondo-



ren, gurea biztutearen beharra eta gogoia ekarri euskun, eukan garrantziak jaubetuta; jantzak, ko-

plak, esakerak, ipuinak... landuz. Aurten be honeri guztiari erabilera emoteko asmoz eskolan

eta herriagaz alkarlanean Gau Baltza ospatu dogu.

Aurreko egunetan jantzak prestatu genduzan, etxeetatik kalabazak ekarri eta hustu, trapu zaharrak mozorro bihurtu...

Egunean, eskolara sartzean dana prest egoan, ilunduta, apainduta, kandelak biztuta, musika bildurgarria jarrita eta irakasleak mozorro tuta. Sarrerea bihotzekoak emotekoa izaten da, ostean mozorroak jantzi eta txiki bildurrezko istorio bat kontau geuntsen, guk be gureak entzun genduzan Nuriaren ahotan. Goiza amaitzeko prestatutako jantzen emonaldia egin genduan.

Gureak herrian oihartzuna izan eian, arrastian, eskolako kalabazak eta landutako abesti-jantzak

plazara eroan genduzan, guraso alkarlearen gehigarri. Iluntzean etxez etxe, herrian eskean ibili ondoren, beste ekintza askoren artean, sua biztu eben eta eskolan idatzitako gure bildurrak sutara bota genduzan.

Geureak geure eginaz, itzali-tako kalabazak biztuten jarraituko dogu.



AGENDEA

ABENDUAK 1
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

17:15ean, ipuin kontaketea, Ameli eta Xirrikuituen jostunen *Amonaren istorioak* ludotekari; 18:15ean, Gaztelekuak antolatuta umeentzako tailerrak, murala... 19:15ean, txokolata plazan.

2024ko zezeilaren 3ra arte, merkeago egin ahal dira erosketak. 20 euroan erositako bonuak 25 euroko balioa eukiko dau. Komertzioak: Aliprox, Andikoa harategia, Gauzak, Arantza Zamalloa farmazia, Estankoa, Denda Barri fruta-dendea + Ke PAN okindegia eta Vade retro ule-apaindegia.

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoietan, 09:00etatik 21:00etara.

ARTEA

16:30ean, Euskerearen Egunaren jaialdia: jantzak, musika eta txokolata frontoian.

19:30ean, Teresa Aranguren eta Anis Hawariren berbaldia *Palestina borroka baten historia* Herriko Bentan.

BEDIA

19:00etan, Euskerearen Eguna ospatuteko, gaztai eta ardao daskaketak, trikilariek girotuta, plazan.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizatu da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, abenduaren Sera arte, Gabonetako Bingo Kaferako izen-emotea liburutegian. Bingo Kafea abenduaren 17an izango da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

DIMA

19:00etan, *Sexualitate anitzak* gazteei zuzendutako berbaldia eskolako kamanan.

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

Hilaren 10era arte, Axular Herriko Tabernak antolatutako Presoen Aldeko Argazki Lehiaketara bialdu daitezke argazkiak axularke@gmail.com helbidera. Hiru argazki gehienez personako jpg. formatuan. Gaia: giltza. Saria: Hatortxu rock jaialdirako sarrerea.

Hilaren 15era arte, Kultur Etxeko ikastaroetan izen-emotea. Ikastaroak: *Akrobazia berriak* 7 eta 12 urte bitartekoentzat, *Akrobazia aurreratuak* 7 eta 12 urte bitartekoentzat, *Gazteen akrobaziak* 13 eta 30 urte bitartekoentzat, *Txi-Kung*, *Literatura tailerra*, *Hipopresiboak*, *Arte plastikoak* eta *Yoga*.

18:30ean, Berbalagun egitasmoak antolatuta, Eriz magoa Kultur Etxean. Euskerearen Eguna.

Astelehenetik eguenera liburutegia zabalik 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:30etik 13:30era.

Abenduaren 15era arte, Lasarte Aretoko bazkide izateko kanpainea.

08:00etatik 22:00etara, ikasgela eguenera zabalik Kultur Etxean.

LEMOA

16:30ean, jolasak eta tailerrak; 18:30ean, rap tailerra Xsakaragaz; 19:45ean, Kittu taldeagaz erromeria. Arrasti guztian zehar jana eta edana. Euskerearen Eguna. Eskolako aterpean.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik Kultur Etxean.

Abenduaren 15era arte, konsumorako bonuak erabili daitezke. Hemen erosi daitezke: Merceria Josier, Tximeleta, Batzoki Lemoa, Kresala, Argazkilune, Laiane lleapaindegia, Farmazia, Amorrortu, Lezat eta Bizkarran, 10 euroko prezioan, 15 euroko balioagaz erabilteko.

08:00etatik 21:00etara, ikasgela eguenera Kotxepinen zabalik.

UBIDE

11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, hilaren 3ra arte, Mamen Lopezen Ubideko herritarren marrazki erakusketea gaztetxean.

ZEANURI

19:30ean, *Tabernaria. Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña* antzezlan Txoko Sagarnan. Euskerearen Eguna.

17:00etatik 20:00etara, Saharako Elkarte Arratian-ek antolatuta. Saharako errefujiaduentzako janari bilketea plazan.

Batxilera eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00etatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik eguenera. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Udagoien osoan, Gorbeia Parke Naturalak Otzarreta ingurua gozatuteko natura errespetauz, konzientziaraz kartelak ipiniko ditu Barazar inguruan.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

ABENDUAK 2
ARANTZAZU

21:30ean, Arnau & The Honky Tonk Losers taldearen kontzertua Herriko Tabernan.

AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, Arkeologi museora bisita gidatua. Museoko leku ezkutuetara: normalean

ikusten ez diran Bizkaiko Parke Naturalean gauzatutako indusketetatik berreskuratutako material arkeologikoak ezetuteko biltegiara bisita gidatua. 15 urtetik gorakoentzat. Aldez aurretik izena emon gorbeia.pärke.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

19:00etan, Cumbaos trio taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

10:00etatik 15:00etara, Herri bat, merkatu bat nekazaritzako produktu eta artisautza azokea plazan. Eguraldi txarra egin ezkeron frontoian.

10:15ean, Paula Guerra Caceresen *Arrazakeriaz hitz egin dezagun* berbaldia Basoa Defendatzaileen Etxean.

DIMA

18:00etan, *Irati* filma eta Paul Urkixo zuzendariagaz alkarrizketea eskolako kamanan. Euskerearen Eguna.

IGORRE

20:00etan, *Bidasoa 2018-2023* filma Kultur Etxean. Euskerearen Eguna.

ZEANURI

17:00etatik 20:00etara, Saharako Elkarte Arratian-ek antolatuta. Saharako errefujiaduentzako janari bilketea plazan.

ABENDUAK 3
ARANTZAZU

11:00etan, horma baten irudia margoztu eta txapa tailerra; 13:00etan, Arantzazuko Argazki Lehiaketaren sari banaketea, eta ostean euskal kantak abestu triki-poteoan. Euskerearen Eguna.

AREATZA

09:00etan, Ehun Mendiako Anaidiaren Eguna, Pagomakurretik Lekandara (1.309 m) igoera eta diplomen banaketea. Aldez aurretik izena emon behar da centenarios@emf.eus helbidean.

12:00etan, 2024ko egutegiko Areatzak Argazki Lehiaketaren sari banaketea udal txetan; 12:30ean, kantu-poteoa herrian zehar, Kilometrokontu taldeagaz. Euskerearen Eguna.

ARTEA

12:30ean, Antxo ta Pantxaren *Eman bizia* umeentzako antzerkia Kultur Etxean.

Euskerearen Eguna.

DIMA

09:30etik aurrera, hormairudia margoztu frontoian; 12:15ean, hasikerako agurra plazan; ostean, kalejireia, bertsoak, zanpantzarrik, jantzak, kantak... 13:00etan, ekitaldia frontoian. Euskerearen Eguna.

IGORRE

12:00etan, euskal kantutegiaren inguruko tailerra Kultur Etxeko goiko gelan; 13:00etan, kantu-poteoa Eingo taldearen eskutik Kultur Etxetik hasita; 19:00etan, Axut eta Artedrama konpainien *Hondamendia* antzezlan Lasarte Aretan. Euskerearen Eguna.

ZEANURI

12:00etan, umeentzako talo tailerra eta talo-jana. Ostean, triki-poteoa herritik. Zazparrakek triki-poteoagaz rallya antolatu dau be. Euskerearen Eguna.

ZEBERIO

11:30etik aurrera, taloak egiteko txokoa, kamisetak eta txapak margotzeko txokoa eta karaoke txokoa; 12:30ean, gaztaina erreak eta kale animazioa Jon eta Olatz trikilariakez; 13:30ean, ekitaldia eta 19:00etan, *Irati* pelikulearen emonaldia. Euskerearen Eguna.

ABENDUAK 4
LEMOA

Hilaren 17ra arte, ikastaroetan izena emoteko epea udal webgunean. Ikastaroak: *Ginekologia naturala eta sexu ahalduntzea II*, *Robotika haurtzaroen*, *Dronen munduan murgiltzen*, *Denboraren bankua* eta *Komunikazio ez bortitza*.

18:30etik 20:00etara, Lemoa 2030. Diagnostikoaren emaitzen aurkezpena Kotxepin Kultur Etxean.

ABENDUAK 5
LEMOA

19:00etatik 21:00etara, Saharako errefujiaduentzako janari bilketea Gaztetxean.

ABENDUAK 7
IGORRE

11:00etatik 14:00etara, Saharako errefujiaduentzako janari bilketea Lehendakari Agirre kaleko bus geralekuan.

ABENDUAK 9
ARTEA

17:00etan, *Txori urdinak* liburuaren aurkezpena Zigor Olabarria eta Santi Cobosen eskutik eta ostean, berbaldia Aitor Urrutxurtu Artabe FIES preso artezarragaz Herriko Bentan.

ABENDUAK 10
BEDIA

Ganguren Mendi Taldeak antolatutako urtekera: Turroi Eguna.

IGORRE

17:00etan, zinea *Trolls 3: todos juntos*; 19:30ean, *Vidas pasadas* Lasarte Aretan.

ABENDUAK 11
AREATZA

Hilaren 15era arte, Saharako Elkarte

Arratian-ek antolatuta. Saharako errefujiaduentzako janari bilketea Harrera Etxean.

ARTEA

Hilaren 15era arte, Saharako Elkarte Arratian-ek antolatuta. Saharako errefujiaduentzako janari bilketea Herriko Bentan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 21era arte, urtailaren 26tik 28ra egingo dan Baqueirara eski urtekerarako izen-emotea liburutegian; Gabonetako Txartel Lehiaketan parte hartu daben marrazkien, Playmobilen belenaren maketearen eta birziklatzeko materialagaz egindako Gabonetako zugatzen erakusketea, liburutegian.

19:00etan, Erregeen Kabalgatan parte hartzeako batzarra eskoletan.

DIMA

Hilaren 15era arte, Saharako Elkarte Arratian-ek antolatuta. Saharako errefujiaduentzako janari bilketea dendan eta eskolan.

IGORRE

08:15etik 14:15era, hilaren 14ra arte, Saharako Elkarte Arratian-ek antolatuta. Saharako errefujiaduentzako janari bilketea Lehendakari Agirreko autobus geralekuan.

LEMOA

18:00etan, 4 eta 8 urte bitarteko umeentzat Amaia Egidazu ipuin kontalariaren *Ipuin malutak*. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

Hilaren 13ra arte, Saharako Elkarte Arratian-ek antolatuta. Saharako errefujiaduentzako janari bilketea eskolan.

ABENDUAK 12
ARTEA

19:00etan, Arteko plan orokorraren gaineko berbaldia. Zer da HAPOa, Zelan imaginatzen dozu Artea? Kultur Etxean.

ABENDUAK 13
IGORRE

17:30ean, futbol entrenatzaileentzako formakuntza saioa Kultur Etxeko 1. gelan.

ABENDUAK 14
IGORRE

17:30ean, futbol entrenatzaileentzako formakuntza saioa Kultur Etxeko musika gelan.

20:00etan, zinekluba Agnes Varda zuzendariaren *Cleo de 5 a 7* Lasarte Aretan.

ABENDUAK 15
AREATZA

20:00etan, Feile musika zelta egiten dauan taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

ARTEA

19:00etan, Irakurleen Txokoa. Miren Amurizaren *Basa*. Idazlea bertan egongo da. Kultur Etxean.

IGORRE

Elkartasun Begiradak alkartearen azoka solidarioa arrastian, Efelan, aniztasun funtzionaldun personoren alkartearen alde, Lehendakari Agirre kaleko autobus geralekuan atzean.

Beatriz Egizabal umoristaren
bakarrizketea egongo da Lemoan

Abenduaren 15ean, 20:00etan, Beatriz Egizabalen *Magma mia* bakarrizketea entzuteko aukerea egongo da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.


2021eko Feministaldia kultura feministaren jaialdian egiteko eskatu eutsien Egizabaleri bakarrizketa bat. Hortik sortu zan *Magma mia* eta ordutik, Ane Labakagaz bost urteko ibilbidea amaituta, bakarrizketa honegaz dabil.

Ikuspegi feministatik, umorez, bakarrizketa honetan, bere egunerokotasunaren azterketea egiten dau umoristek. "Adin jakin bat daukat, eta hor dagoz menopausia, zoru pelbikoa... Alua gora, alua behera ibiltzen gara. Aluan daukagun indar horregaz, magma horregaz, sumendia bizten badogu... goazen sistema erretera" adierazo eutsan Egizabalek Berriari alkarrizketa baten.



KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m²) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

TXOKORAKO MAHAIK

SALTZEAN DIRA

Mahaien neurriak: 2,80 metro luzeera, 90 cm zabalera eta 8,50 cm lodiera. Prezioa: 300 euro. Eserlekua, 2,80 eta 3 metrokoak, 50 euro bakoak. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeera, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratua.

Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

LANA

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. 629 461 077.

FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Arratiako Ziklista Elkarteak emondako materiala.

Peru Perez de Anuzita (Areatza)
Unai Totorika (Zeanuri)



2

Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Beatriz Egizabalen Magma mia bakarrizketarako.



Itziar Urkiaga (Arantzazu)
Izkander Fernandez (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
Tlf. 94 631 92 00

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tlf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

begitu
eus



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



94 631 72 57 **Igorre (Bizkaia)**



eraiketak@construccionesekin.com